

JASANGARRITASUNA UNIBERTSITATE GRADUETAN LANTZEKO GIDA METODOLOGIKOA

Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduan
garatutako esperientzia

GUÍA METODOLÓGICA PARA DESARROLLAR LA SOSTENIBILIDAD EN LOS GRADOS UNIVERSITARIOS

Experiencia desarrollada en el grado de
Nutrición Humana y Dietética

Egileak
Autoras/es

ZEHARGAITUZ IKD IRAKASLE TALDE EGITURATUA
EQUIPO IKD ESTRUCTURADO ZEHARGAITUZ

Marian Bustamante, Virginia Navarro, Olaia Martinez,
Itziar Txurruka, Jonatan Miranda, Edurne Simón, Diego Rada,
Iñaki Etaio, Igor Hernández, Idoia Larretxi eta Arrate Lasa



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

JASANGARRITASUNA UNIBERTSITATE GRADUETAN LANTZEKO GIDA METODOLOGIKOA

Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduan
garatutako esperientzia

Egileak

ZEHARGAITUZ IKD IRAKASLE TALDE EGITURATUA

Marian Bustamante, Virginia Navarro, Olaia Martinez, Itziar Txurruka,
Jonatan Miranda, Edurne Simón, Diego Rada, Iñaki Etaio, Igor Hernández,
Idoia Larretxi eta Arrate Lasa



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

FARMAZIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE FARMACIA

Prologoa

Antropozenoangaude. Gizakiaren jarduerak planetako kliman eta ekosistemetan eragindako inpaktuak aintzat hartzen dituen aro geologikoa. Jadanik, planetaren muga garrantzitsu batzuk zeharkatu ditugu (aniztasun genetikoa, eta fosforo zein nitrogeno zikloak barne) eta aldaketa klimatikoa hemen dago. Ebidentzia zientifiko ugari garbi erakutsi digute, aldaketa klimatikoak mundu honetako espezieen ongizatea eta biziraupena kolokan jartzen dituela, eta hortaz, desoreka egoera honi aurre egiteko, gizarte-paradigmaren eraldaketa sistemikoak eta ondo sustraitutakoak gertatu behar direla hainbat eremutan.

Indarrean dagoen elikadura sistema agroindustrial eta globalizatua aldaketa klimatikoaren erantzule nagusietako bat da, berotegi efektuko gasen heren baten erantzule nagusi izanik. Ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu ez iraunkorrek lehenesten dira, ingurumenean eta dimentsio ekonomiko eta sozialean eragin negatibo handiak dakartzatenak. Gauza jakina da elikadura sistema agroindustrialek elikadura ohitura ez osasuntsuak ezarri dituztela, ingurune obesogenikoak bermatuz eta egungo gaixotasun askoren eragile nagusi bilakatuz.

Ondorio eta eredu horien aurrean epe luzeko estrategia jasangarriak lantzea eta bermatzea da giltza. Hala ere, jasangarritasunaren kontzeptua berria da eta aldi berean kontzeptu-kutxa nahasia. Izan ere, aise erabiltzen den kontzeptua da (gehien bat marketinaren ikuspegi batetik), baina bere definizioa, barneraketa eta begirada integralaren inplementazioa oso urria da.

Komunitateen trantsizioa era jasangarri batean bermatu nahi bada, hots, faktore ekonomiko, sozial, ingurumeneko eta kulturalak kontutan hartuta, paradigma eraldaketa bat behar dugu. Egiteko eta pentsatzeko moduen metamorfosia, eta horretarako, hezkuntza eta formakuntza dira oinarrizko eta ezinbesteko lan eremu.

Unibertsitatea, profesional espezializatuen formakuntzan jarduten duen hezkuntza arloa izanik, etorkizuneko aditu eta arituen prestakuntza bideratzen du. Hala, goi-mailako ikasketen arduradunek hausnarketa sakon bat egin behar dute, bai ikasgai bakoitzak jasangarritasunarekin duen lotura eta elkarreraginak aztertuz eta baita ere ikasleei ezagutza hori helarazteko modu egokienak aukeratuz. Ikasleek, etorkizuneko profesional horiek, gaitasuna garatu behar dute jasangarritasunetik aritzeko beraien lanbidetan.

Ezin aipatu gabe utzi, jasangarritasunaz ari garenean, diziplina anitzeko profesionalen elkarlana eta jakintza trukaketak funtsezkoak direla. Aniztasun horrek begirada holistikoa eta integrala emango dio formakuntzari, bakoitzaren arlotik harago garatuz, berrikuntzari lekua emanaz.

Zehargaituz ikd irakasle talde egituratuak aurkezten duen gida hau, begirada holistiko hori landu nahian, unibertsitate ikasketetan jasangarritasuna lantzeko abiapuntuak eskaintzen dizkigu. Gidak izaera praktikoa du, eta era efiziente batean azaltzen du nola txertatu daitekeen jasangarritasunaren rola ikasgai ezberdinetan. Beraz, gida hau betiko egiteko moduak moldatzeko pausu sendo bat da, jasangarritasunaren garrantzia norborean barneratuz eta etorkizuneko profesionalak jendarte eta planeta baten zaintzaren alde lan egiteko prestatuz.

Amaitzeko, Zehargaituz taldeko kide diren irakasleei eskertu nahiko nieke egindako ahalegina. Egiteko era berriak garatu eta sortutako jakintza elkarbanatu dute, beraz, bide berriak irekiz egungo erronkei aurre egiteko.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. HELBURUA	7
3. GAITASUNAREN DEFINIZIOA	8
4. GAITASUNAREN EZARPENA	9
4.1. IKASKETA EMAITZAK.....	9
4.2. METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA	11
4.3. IKASLEEN FEEDBACKA JASOTZEKO TRESNAK.....	14
5. ESPERIENTZIA GIZA NUTRIZIOKO ETA DIETETIKAKO GRADUAN	17
6. IDEIA NAGUSIAK.....	20
7. BIBLIOGRAFIA.....	21
8. ERANSKINA: gaitasuna lantzeko jarduerak	25

1. SARRERA

Ukaezina da gero eta mundu globalizatu, industrializatu eta interkonektatuagoan bizi garela. Hori dela eta, egungo gizarteak klima-aldaketa, baliabide-eskasia, pobrezia, aldaketa demografikoa edo pandemien moduko erronka berriei aurre egin behar die (Wiek eta lag., 2011). Erronka horiek guztiak jasangarritasunaren alorrean biltzea proposatzen dute adituek. Izan ere, jende askok daukan aurreiritziaren kontra, jasangarritasun kontzeptuak ingurumen kalitatea lortzea ez ezik, berdintasuna eta justizia soziala ere barneratzen ditu, politika, ekonomia eta osasuna aintzat hartuz (Aznar eta Ull, 2009; Leal Filho eta lag., 2017; Zeegers eta Francis Clark, 2014). Beraz, gizartearen arazoak aztertzen eta horien konponbidea bilatzen duen ikerketa eta lorpen akademikoak ditu helburu jasangarritasunak (Tilbury, 2011). Baina, prest al dago gure gizartea jasangarritasunaren erronkei aurre egiteko?

Ull ikertzaileak bere iritzia testuan (2010) proposatzen duenaren arabera, aipatutako arazo horiek jendearen mentalitatean eta balioetan errotuak dauden ohituren ondorio dira. Horiei aurre egin ahal izateko hezkuntza funtsezkoa da, ikasleek erantzukizun soziala landu dezaten eta, ondorioz, etorkizuneko profesionalak arazo horien jakitun, partaide eta arduradun senti daitezten.

Gizarte erantzukizuna hezkuntzaren maila guztietan landu behar bada ere, goi mailako hezkuntzan garrantzi berezia dauka, izan ere, espezialitate bakoitzak arlo konkretuetan eragin dezake. Gainera, dagoeneko, lan-arloan jasangarritasunarekin lotutako gaitasunak eskatzen hasiak dira (Perez Salgado eta lag., 2018). Hortaz, etorkizuneko profesionalek unibertsitatean sakon jorratu beharko luketen alderdia da. Unibertsitateko ikasleek funtsezko eginkizuna dute etorkizuneko gizartean, izan ere gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-kezkak konpondu beharko dituzte eta, profesional eta herritar gisa, gero eta handiagoa den pobrezia, ingurumen-degradazioa eta desparekotasunari aurre egin beharko diote. Valderrama eta kolaboratzaileek (2020) unibertsitate-graduetan iraunkortasuna lantzeari buruz ikasleek duten pertzepzioa deskribatu zuten, eta, emaitzen arabera, beraien prestakuntza ez zen nahikoa. Ikasleak ez dira prest sentitzen iraunkortasuna praktika profesionalean txertatzeko, eta funtsezkoa iruditzen zaie unibertsitateko curriculumetan sartzea.

Beraz, goi mailako hezkuntza eremuak betebeharrak batzuk finkatu behar ditu, gizarteak eskatzen dituen jasangarritasun arloko beharrak asetzeko. Goi mailako hezkuntzan jasangarritasuna ezartzeari buruz egindako analisisian, Ull eta lankideek (2010) zenbait helburu definitu zituzten:

- Gizartea eta ingurunearen arteko erlazioaren aldaketa bultzatzen duten hezkuntza eta ikerkuntza mailako jarduerak sustatzea, jasangarritasun faltaren erantzule diren arazoen ebazpena eta prebentzioa bultzatuz.
- Jasangarritasun esparruko adituen eta unibertsitateko ikasleen arteko elkarrekintza estutzea.
- Eredu kurrikular malguak garatzea giza-garapen jasangarria (ingurugiroari eta gizarteari dagokionez) ahalbidetzen duen ikuspuntu holistikoa lantzen dutenak.
- Unibertsitatearen rola indartzea: orainaldi eta etorkizun jasangarriago baterako bidea eraikitzeke gaitasuna erakutsi behar du.

Aurreko helburuak lehentasunagertzendira 2002an Nazio Batuen erakundeak proposatutako, eta UNESCOk 2005-2014 urteen bitartean kudeatutako, "garapen jasangarriaren aldeko hezkuntzaren hamarkada"ko helburuen artean (UNESCO, 2005). Ildo bera jarraituz, garapen jasangarriko programa berria aurkeztu zuten Nazio Batuek 2015eko irailean eta, geroago, 17 helburutan oinarritutako mundu mailako klima aldaketaren akordioa adostu zen 2030. urtearen aurretik gauzatzeko (Garapen Jasangarriko Helburuak, GJH).

Testuinguru honetan, goi mailako hezkuntza erakundeak gero eta arduratuago daude oinarritzko honako hiru helmuga dituzten ikaskuntza eta antolaketa prozesuak gauzatzeko: ingurugiroaren babesa, garapen ekonomikoa eta justizia soziala (Leal Filho eta Manolas, 2011; Sepetis eta lag., 2020). 2005ean Estatu Batuetako unibertsitateek goi mailako hezkuntzan Jasangarritasunaren Aurrerapenaren aldeko Elkarteak sortu zuten (*Association for the Advancement of Sustainability in Higher Education, AASHE*), *Second Nature* irabazi asmorik gabeko elkartearen eraginagatik (Barlett eta Chase, 2004). Horren helburua campusetan jasangarritasunaren garapena gauzatzeko esfortzuak koordinatzeko sarea eraikitzea zen. Txinan ere, Tongjiko eta Zhejiango Unibertsitateek, beste zortzi unibertsitateekin batera, Txinako Unibertsitate Sare Berdea (CGUN) eratu zuten Shangain 2011n. Sare honen xedea unibertsitateen elkar-komunikaziorako eta campus berdea garatzeko euskarri izatea zen.

Europa mailan azken hamarkadan goi mailako hezkuntza jasangarria hedatu da hainbat eragileren eskutik, besteak beste: Unibertsitate eta eskoletarako Ingurumen Elkarteak (*Environmental Associations for Universities and Colleges, EAUC*) Erresuma Batuan eta Garapen Iraunkorreko Goi Mailakako Hezkuntza Planen Herbereetako Sarea (*Dutch Network for sustainable development in Higher Education Curricula*). Hezkuntza jasangarriaren ideia hainbat ikuspegitatik landu da, campusean garapen profesionala, baliabideak, lan egiteko prozedura berriak eta ikasleen zereginak eta jarduerak bultzatuz.

Estatuan, Espainiako Unibertsitateetako Errektore Konferentziak (CRUE-k) jasangarritasuna unibertsitate mailako hezkuntza sisteman ezartzeko jarraibideak onartu zituen 2005ean (CRUE, 2005). Horien bidez, unibertsitateek etorkizuneko profesionaleri erakutsi nahi zieten beren jarduerak nola eragiten duen gizartearekin eta ingurumenarekin, haiengan izan ditzaketen eraginak identifikatzeko. Horrela, profesionalek giza eskubideak defendatzen dituzten fundamentu deontologiko eta balio etiko unibertsalak aplikatzen jakin beharko dute, modu aktiboan ekintza politiko eta pribatuak eztabaidatzen, definitzen eta ebaluatzen jakin behar duten moduan. Izan ere, aipatutako pausuak jarraituz, 2007an Espainiako Gobernuak Lege Organiko bat onartu zuen (4/2007 Lege Organikoa), hezkuntzak giza eskubideen, oinarri demokratikoen, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren eta elkartasunaren ezagutza eta sustatzearen alde egin behar duela babesten duena, ingurugiroa zaintzearekin eta bake-kultura bultzatzearekin batera. Erreferentziazko testu horiek guztiek garapen jasangarriko ezinbesteko baliabide gisa definitzen dute hezkuntza. Testuinguru horretan, EDINSOST proiektuak nazioko goi-mailako hezkuntzan iraunkortasun-gaitasunaren mapa ezartzen lagundu du, eta gaitasun hori inplementatzeko tresna pedagogikoak sortu ditu (Albareda-Tiana eta COL., 2020).

Jasangarritasuna euren baitan sustatzeko, Estatuko hainbat unibertsitatek akordio horiek hartu dituzte abiapuntutzat. Eredu garbia dira Valentziako Unibertsitateko campus iraunkorra, Bartzelonako Unibertsitatea, Granadako, A Coruñako eta Vigokoa, beste askoren artean. Eusko Jaurlaritzak ere, dokumentu esanguratsua argitaratu du duela gutxi, 2030erako Euskadiko jasangarritasunerako hezkuntza estrategia aurkezten duena (Eusko Jaurlaritza, 2018). Bertan, Euskadiko hezkuntzaren egoera aztertzen da eta jasangarritasunaren alderdian dituen erronkak aurkezten dira, goi mailako hezkuntzarenak barne.

Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) ere, bere 2018/2021ko Plan Estrategikoan honako konpromiso hau hartu zuen: *“unibertsitatea garapen iraunkorra, inklusioa eta gizarte konpromisoa sustatzen duen erakunde bihurtzea”*. Nazio Batuen GJHen bidea jarraituz, EHU-agenda 2030 (UPV/EHU, 2018) eraiki du, non hainbat sektore-plan onartu diren helburu horietan ekarpena egin nahian: berdintasun plana, inklusio plana eta planeta campusa, hala nola IKD i³ hezkuntza ereduari (ikaskuntza x ikerkuntza x jasangarritasuna) egindako berrirakurketa. Izan ere, UPV/EHUK daukan ibilbide orria 12 GJH-etan zehaztu da, Nazio Batuen 17 helburuei bat gehituz: hizkuntza eta kultur aniztasuna. Ildo honetan, UPV/EHUK zeharkako gaitasunen katalogoa argitaratu du 2019an (UPV/EHU, 2019), non Gizarte Konpromisoa eta Etika eta Erantzukizun Profesionala beste sei gaitasunen artean definitzen diren.

UPV/EHUK urteak eman ditu jasangarritasunaren inguruan proiektuak sustatzen, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza eta bere baitan dagoen Jasangarritasun arloaren bidez. Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen hezkuntzari buruzko UNESCO katedra sortu zuen 2002an, honen helburu nagusia jasangarritasuna eta ingurumen hezkuntzari buruzko ikerketan sakontzea da, diziplinarteko ikuspuntu batetatik. Katedrak bultzatzen dituen ikerketa eta jarduerak Euskal Herrian dauden garapen iraunkorrekiko zerikusia duten arazoak ulertzea eta ebaztera bideratuta daude.

Graduen ikasketa-planei begira, ordea, asko dago oraindik garatzeko mundu mailan (Leal Filho eta lag., 2018). Shepard-ek (2018) azpimarratu zuenez, jasangarritasuna unibertsitate graduetako ezarpenean dagoen hutsunea kontsentsu faltari zor zaio. Adostu beharrekoen artean leudeke: ikasketa sustatzeko prozesuak, emaitzetara orientatutako metodoak eta garapen jasangarrira orientatutako hezkuntzaren baitako oinarritzko kontzeptuak. Kontzeptu horiek guztiak unibertsitatean integratzeko estrategia interesgarrietako bat titulazioen plangintzan modu esplizituan lan egitea da. O’Flaherty eta lankideek 2018an estrategia hori jorratzen zuten lanak aztertu zituzten (O’Flaherty eta Liddy, 2018). Gehien erabiltzen dena, sinpleena, graduaren plangintzan ikastaro edo irakasgai espezifiko eta derrigorrezko bat gehitzea da. Europako unibertsitate batzuek estrategia hori jarraitu duten arren, garrantzitsua da azpimarratzea jasangarritasuna graduaren irakasgai gehiagotan jorratzea egokiago litzatekela (Ull eta lag., 2010). Izan ere, Stough eta lankideen esanetan (2018), jasangarritasuna irakasgai isolatuetan jorratzeak mugak ditu, bereziki kontzeptualizazioaren aldakortasunari eta tratamendu holistikoari dagokionez. Beraz, kontzeptualizazio-lana titulazio osoan, ikuspuntu ezberdinetatik eta irakasgai ezberdinetan garatzea litzateke proposamen interesgarriena.

Gida hau jasangarritasuna titulazioen programetan txertatzen laguntzeko proposamen metodologiko bat da, nazioarteko goi hezkuntzako erakundeek zein UPV/EHUK berezko dituen ildoak jarraituz sortu da. Lehen atalean erabilitako metodologiaren oinarriak erakutsiko dira, gaitasuna eta bere ikasketa-emaitzak definituta eta horietarako ebaluazio tresnak proposatuta. Bigarren atalean, Giza Nutrizioko eta Dietetikako (GND) Graduan praktikan egindako ezarpen saiakera deskribatuko da. Eranskinetan, proiektu honetan garatutako jarduera espezifikoak aurkeztuko dira adibide gisa, beste gradu edota ezagutza arloetan moldatuak izateko.

2. HELBURUA

Gida honen helburu nagusia unibertsitateko graduetan jasangarritasuna zeharkako gaitasun gisa lantzeko eta horretara bideratutako ikaskuntza-irakaskuntza prozesua hobetzeko ildoak eskaintzea da.

Alde batetik, graduiko irakaskuntza antolatzeko ardura duten irakasle talde edo zuzendaritza taldeei zuzenduta, jasangarritasuna gaitasun gisa unibertsitateko graduetan integratzeko bete beharreko premisak azaltzen dira, funts teorikoan sakonduz. Espresuki azaltzen dira jasangarritasuna lantzeko azpigaitasunak, ikasketa-emaitzak, alderdi metodologikoak eta ebaluazioa. Halaber, gaitasuna lantzeko jardueren edo programen eraginkortasuna balioztatzeko tresnak ere proposatzen dira. Banakako irakasgaietan ere erabil litezke gida honetan proposatzen diren erremintak.

Bestetik, UPV/EHUko Giza Nutrizio eta Dietetikako Graduan burututako esperientzia zehatz baten berri ematen da; bertan erabilitako diseinu esperimentalak, metodologia eta irakaskuntza-jarduerak eskaintzen da/ditu. Material hau lehen atalean azaltzen den oinarri teorikoaren arabera sortutakoa da eta eredu baliagarria izan daiteke beste gradu eta testuinguru batean jasangarritasuna integratzeko suerta daitezkeen etorkizuneko esperientzietan.

3. GAITASUNAREN DEFINIZIOA

Lehenengo eta behin, landu nahi den gaitasuna definitzea beharrezkoa da. Horretarako, literaturan aztertutakoaren arabera, hiru azpigaitasun identifikatu dira (Anderson, 2015; Vega-Marcote eta lag., 2015; Wiek eta lag., 2011).

G1. Ikuspegi holistikoa: sistema konplexuak hainbat alorretatik (gizartea, ingurumena, ekonomia, osasuna, etab.) eta maila ezberdinetatik (lokaletik orokorrera) aztertzeo gaitasuna. Ikuspegi holistikoak egungo jasangarritasun arazoan egoera eta horien jatorria ulertzea bermatzen du. Horretarako, beharrezkoa da adierazle guztiak (ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak eta osasunekoak) identifikatzen jakitea (20).

G2. Aurreikuspen gaitasuna: etorkizunera begira jasangarritasunarekin erlazionatutako iragarpen aberatsak taldean proposatu, aztertu eta ebaluatzeo gaitasuna. Gaitasun honek gaur eguneko arazoan, testuinguruaren edo neurrien etorkizuneko bilakaera aurreikusten trebatzea inplikatu du.

G3. Estrategia gaitasuna: jasangarritasunarekin lotutako esku-hartze edo akzio estrategiko eraldatzaileak diseinatzeo edo/eta inplementatzeo gaitasuna. Gaitasun hau jorratzean, jasangarritasunarekin lotutako arazo erreal baten aurrean konponbideak bilatzen ikasten da.

Azpimarratzekoa da jasangarritasunaren baitan gizarte erantzukizunak duen garrantzia. Gizarte bateko kideek elkarren artean zein gizarte osoarekiko hartzen duten zama, konpromiso edo betebeharrari dagozkie. Halaber, jarrera eta pertsonen arteko harremanak ere gaitasunaren definizioan aintzat hartu behar dira; hots, jasangarritasunarekin erlazionatutako arazoak modu et aloratiboan eta partehartzailean ebazteko motibazio- eta sustatze-gaitasuna landu behar da. Horrek batzen ditu kulturen, erkidegoen, talde sozialen eta gizabanakoen arteko ikuspuntu ezberdinak ulertzeo, alderatzeo eta modu kritikoan aztertzeo gaitasunak.

4. GAITASUNAREN EZARPENA

Atal honetan jasagarritasuna unibertsitateko edozein gradutan, era progresibo eta koordinatuan ezartzeko proposamengenerikoa egingoda/jasoda, dagozkion azpigaitasunak ardatz hartuta (G1-G3). Zehazki, ikasketa emaitzen antolaketari, metodologiari eta ebaluazioari buruzko argibideak eskainiko dira.

4.1. IKASKETA EMAITZAK

Behin gaitasuna definituta, gradu osoan zehar modu mailakatu eta jarrai batean landu behar da. Bloom-en taxonomia (1956) horretarako eredu da. Honen arabera, ikasketa-emaitzak definitu daitezke ikasketa prozesuen konplexutasun ezberdinak adierazten dituen egitura bati jarraiki. Bloom-en arabera, irakaste prozesuaren helburuak mailakatu daitezke arlo ezberdinetan: kognitiboa, psikomotorra eta afektiboa. Goi-mailako hezkuntzan helburu didaktikoak arlo kognitiboan kokatu ohi dira, gehienbat. Bloom-en taxonomiak trebetasun kognitiboak sei abstrakzio mailatan sailkatzen ditu (1. irudia) (ANECA, 2013). Gainera, egitura honek aditz ezberdinak proposatzen ditu kasuan kasuko ikasketa-emaitzaki identifikatzeko.



1. Irudia. Trebetasun kognitiboaren abstrakzio-mailak Bloom-en arabera (1956).

Gaur egun unibertsitate gradu gehienak lau urteetan garatzen dira. Denbora horretan jasagarritasuna lantzeko gaitasunari dagozkion prozesamendu sinpleenetatik hasi eta irakaskuntza emaitza konplexuenera egin behar da bidea, Bloom-en mailakatzeko aintzat hartuta. Modu horretan, hauxe litzateke jasagarritasuna eta dagozkion azpigaitasunak lantzeko proposamena, 1. Taulan ere azaltzen dena:

1. Taula. Gaitasunen lanketa progresiboa eta honekin lotutako ikasketa emaitzak, mailakatuta 4 ikasturteko unibertsitate graduari

GAITASUNA	MAILA	IKASKETA-EMAITZAK
G1. Ikuspegi holistikoa	1 eta 2	Arazo baten analisisian, inguruneko dimentsioak identifikatzea edo interpretatzea (gizarte, kultura, ekonomia, politika, estetika, fisika, biologia, arautegia, komunikabideak, jarrera-ereduak...)
	3	Arazo baten analisisian, inguruneko dimentsioak analizatzea (gizarte, kultura, ekonomia, politika, estetika, fisika, biologia, arautegia, komunikabideak, jarrera-ereduak...)
	4 Gidaritzapeko Praktikak eta GRALak	Arazo baten analisisian, inguruneko dimentsioak integratzea (gizarte, kultura, ekonomia, politika, estetika, fisika, biologia, arautegia, komunikabideak, jarrera-ereduak...)
G2. Aurreikuspen gaitasuna	1	Ez da oraindik jorratzen
	2	Etorkizunera begira jasangarritasunarekin erlazionatutako iragarpen aberatsak aurreikustea
	3	Etorkizunera begira jasangarritasunarekin erlazionatutako iragarpen aberatsak aztertzea
	4 Gidaritzapeko Praktikak eta GRALak	Etorkizunera begira jasangarritasunarekin erlazionatutako iragarpen aberatsak integratzea
G3. Estrategia gaitasuna	1	Ez da oraindik jorratzen
	2	Ez da oraindik jorratzen
	3	Jasangarritasunarekin erlazionatutako arazoak konpontzeko aurrera eraman diren planak edo proposamenak aztertzea
	4 Gidaritzapeko Praktikak eta GRALak	Iraunkortasunarekin erlazionatutako arazoak konpontzeko aurrera eramango den zeharkako plan/ proposamena diseinatzea eta ebaluatzea Oharra: diseinuan ikasleak duen erantzukizun sozialerako ikuspegia baloratuko da. Alegia, analisi holistikoa integratzailean kontuan hartuko dira: elkartasuna, hezkuntza, disziplina aniztasuna, konprometzua, etab.

G: Gaitasuna.

Gaitasuna garatzeko planteatzen diren jarduerak jasangarritasunarekin erlazioa duen arazo baten azterketa dute helburu. Graduaren lehenengo mailan arazoaren aurrean garatu beharreko ikuspegi holistikoa bilatzen da (G1), arazoari eragin diezaioketen dimentsio desberdinak identifikatuko dira (dimentsio ekologikoa, ekonomikoa, kulturala, osasun arlokoa, etab). Bigarren mailan, analisi holistikoz gain, ikasleek aurreikuspen gaitasuna (G2) landu beharko dute eta horrela arazoak ezer egin ezean nola eboluzionatuko lukeen aurreikusteko gai izan beharko dira. Hirugarren mailan, aurrekoa sakontasun handiagoaz landuko da dimentsioak eta aurreikuspenak analizatuko dira. Horrez gain, gaitasun estrategikoa garatuko da (G3), halako arazoaren aurrean egin diren ebazpen planak edo aurrera eraman diren konponbideak aztertuko dira. Laugarren mailan, gaitasuna osorik landuko da, analisi holistikoa eta aurreikuspena integratu eta arazoaren aurrean egin diren ebazpen planak analizatu eta eztabaidatu beharko dituzte. Gradua amaitzeko,

azken ikasturtea denez, ikasleek ebazpen plan berri bat diseinatu beharko dute arazoari konponbidea emateko. Maila honetan, beraiek proposatutako planak ebaluatu eta izango dituen ondorioak aurreikusi beharko dituzte.

Gaitasun holistikoa izango da gradu osoan presente egongo den azpigaitasuna, lehen ikasturteko irakaskuntza emaitzetara hoberen egokitu daitekeelako eta, nolabait, G2 eta G3an ere integratzen den alderdia delako. Hala ere, Bloom-en eskema jarraituz, lehen ikasturtean hainbat alderdi identifikatuko dira soilik eta horretarako irakaslearen gidaritzak pisu handia izango du. Aurrerago gidaritzza hori gutxituz joango da ikasleek inplikaturako alderdiak beren kabuz aztertu eta eztabaidatzeraino, aukeraketa datu objektibo egokietan oinarrituta. Azken mailetan, estrategia lantzen ari direnean, ikuspegi holistikoa, aurreikuspenarekin batera, automatikoki integratzeko konpetentzia erakustea espero da.

4.2. METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA

Aurreko atalean proposatutako lanketa mailakatura egokituz, apropos liratekeen metodologiak zehaztuko dira segidan. Horrez gain, azpigaitasun bakoitza era mailakatuan baloratzeko errubrikak ere eskaintzen dira.

4.2.1. METODOLOGIA AKTIBOAK

Metodologia aktiboak azken urteotan sakon aztertu dira, hezkuntza maila guztietan jaso dituzten emaitza positiboak ikusita (Aranzabal, 2014; Freeman eta lag., 2014; Prince, 2004). Jasangarritasuna gainerako pertsonekin harremanak eta hausnarketak indartuz lantzea hobesten da literaturan, eta irakaskuntza metodologia aktiboak egokienak dira horretarako. Hala ere, bateratze metodologikoa beharrezkoa dela aldarrikatzen dute zenbait autorek, dagoen aniztasun handiaren aurrean kontsentsua behar dela proposatzen dute askok (O'Flaherty eta Liddy, 2018; Shephard eta lag., 2018).

Ikuspegi holistikoa bermatze aldera, alderdi sozialak eta ingurumenari dagozkionak uztartzea beharrezkotzat jotzen da (O'Byrne eta lag., 2015; Watson eta lag., 2013). Ikasleek integrazio behar hori ulertu eta bere egin dezaten ezinbestekoa da arazoaren ebazpenerako gaitasuna garatzea, zientzia zein gizarte arloko jakintzan sakontzea eta gizaki eta ingurumenaren arteko erlazioari buruzko kontzientzia eta sentikortasuna garatzea (Mitchell eta Walinga, 2017). Klase magistral tradizionalak oso gaitasun mugatua dute, jasangarritasuna lantzeak eskatzen dituen alderdi guzti hauetan sakontzeko. Teoria konstruktibistan oinarrituta (Ertmer eta Newby, 2013), metodologia aktiboak ikasleek gaitasun konplexuak eskuratzeko tresna egokiagoak dira. Elkarlana, parte-hartze aktiboa, gogoeta, eztabaida eta jarrera kritikoa jasangarritasunaren parte oinarritzekoak dira eta gaitasun hauek sakonago jorratu daitezke metodologia aktiboen bitartez. Hauetan ezagutzaren garapena ikaslearen parte-hartze eta hausnarketaren arabera da (Collins eta O'Brien, 2003). Aski aitortua dago metodologia hauen balioa (Brundiers eta Wiek, 2013; McCormack eta O'Flaherty, 2010), hainbat esperientzian metodologia tradizionalak baino emaitza hobek deskribatu izan direlako (Freeman eta lag., 2014; Vega-Marcote eta lag., 2015; Álvarez-Suárez eta lag., 2013). Hori bai, dedikazioa eta irakasleen partetik formazio espezifikoa exijitzen dute (Ashmann eta Franzen, 2017; Etaio eta lag., 2018; Frame eta lag., 2015; Vega-Marcote eta lag., 2015). Irakasgai bakoitzaren ezaugarri eta testuinguruaren arabera, irakasle bakoitzak erabaki beharko du gaitasuna nola landu eta zein metodologia erabili, taldeari eta graduaren profilari ahal den hoberen egokitzeko.

Gida honen helburua ez da hainbat metodologia aktibo deskribatzea edo horietan sakontzea. Dena den, 5. atalean jasangarritasuna zeharkako gaitasun gisa unibertsitateko graduatan txertatzeko esperientzia praktikoa deskribatzen da eta bertan esperientzia zehatz honetan erabilitako metodologiaren nondik norakoak era xehetuan azaltzen dira, irakurleari lagungarri izango zaizkiolakoan.

4.2.2. EBALUAZIOA

Ebaluazioak arestian aipatutako mailakatze eskema jarraitu beharko luke. Graduaren maila igo ahala, gaitasunaren sakontasuna handitu beharko litzateke, ikasleek gero eta oinarri sendoagoa izango dutelako urrunago iritsi ahal izateko. Alde batetik, metodologia aktiboen parametroetan lan egiten ikasten joango dira, horietan beharrezko diren alderdietan trebatuz joango direlako urte urte (talde dinamikak, bilerak, koordinazioa, komunikazioa...). Bestetik, jasangarritasunaren alderdi sinpleenetatik hasi (ikuspegi holistikoa osatzen duten alderdien identifikazio soila, adibidez) eta konplexuenera iristen joango dira (esaterako, aurreikuspen teknikoak edo soluzio konplexuak proposatzea beti ere ikuspegi integral batekin). Era berean, exigentzia mailaren handitzearekin batera, honek kalifikazioetan izango duen pisua ere handiagoa izan ahalko da. Modu honetan, lan horrek balioko duen notaren ehuneko gero eta handiagoa izan daiteke ikaslea graduako mailetan gora joan ahala.

Kontuan izanda lehen aipatutako Bloom-en oinarritutako emaitzen mailakatzea, ebaluazio-errubrikak ikasketa-emaitzetara eta abstrakzio-maila desberdinetara egokitzea komeni da. 2., 3. eta 4. tauletan azpigaitasun bakoitzaren ebaluazio errubrika generikoak eskaintzen dira. Irakasgai bakoitzerako molda daitezkeen erremintak dira. Matrizean baremazioa lau mailatan banatu da (0, 1, 2 eta 3), eta irakasgaiaren azken emaitzaren ekarpena emateko baliagarriak dira.

2. Taula. G1: Ikuspegi holistikoa gaitasuna ebaluatzeko errubrika: ikasketa emaitza mailakatuak eta ebaluazio irizpideak

G1. Ikuspegi holistikoa				
Ikasketa-emaitzak (<i>Graduaren maila</i>)	Ebaluazio irizpideak eta baremazioa			
	0	1	2	3
Dimentsioak identifikatzea edo interpretatzea (<i>1-2. maila</i>)	Ez du bat ere identifikatu/interpretatu	Erdia baino gutxiago identifikatu/interpretatu ditu	Erdia baino gehiago identifikatu/interpretatu ditu	Guztiak identifikatu/interpretatu ditu
Dimentsioak analizatzea (<i>3. maila</i>) *Zuzen: Adierazleetan oinarrituta (arrazoituta)	Ez dago analisisirik edo analisi guztiak okerrak dira	Analizatu ditu batzuk baina erdia oker Analizatu ditu erdia baino gutxiago eta ondo	Analizatu ditu guztiak baina baten bat oker Gehienak analizatu ditu eta ondo	Denak analizatu ditu eta ondo
Dimentsioak integratzea (<i>4. maila</i>) *Zuzen: Adierazleetan oinarrituta (arrazoituta)	Ez du bat ere integratu edo integratu dituen guztiak oker daude	Integratu ditu batzuk baina erdiak oker Integratu ditu erdiak baino gutxiago eta ondo	Integratu ditu guztiak baina baten bat oker Gehienak integratu ditu eta ondo	Denak integratu ditu eta ondo

3. Taula. G2: Aurreikuspen gaitasuna ebaluatzeko errubrika: ikasketa emaitza mailakatuak eta ebaluazio irizpideak

G2. Aurreikuspen gaitasuna				
Ikasketa-emaitzak (Graduaren maila)	Ebaluazio irizpideak eta baremazioa			
	0		1	
Arazoaren eboluzioa aurreikustea (2. maila)	Ez du arazoaren eboluzioa aurreikusi.		Arazoaren eboluzioaren inguruko alderdi bat, edo gehiago, aipatu ditu	
Ikasketa-emaitzak (Graduaren maila)	Ebaluazio irizpideak eta baremazioa			
	0	1	2	3
Arazoaren eboluzioa aztertzea (3. maila)	Arazoaren analisiak gaur egun duen egoera bakarrik planteatzen du	Arazoaren analisiak bere eboluzioaren inguruko alderdiren bat aipatu eta aztertu du	Arazoaren analisiak bere eboluzioaren inguruko alderdiren bat aipatu du eta jasangarritasunarekin erlazionatutako dimentsioren bat kontuan izanez aztertu du	Arazoaren analisiak bere eboluzioaren inguruko alderdiren bat aipatu du eta jasangarritasunarekin erlazionatutako zenbait dimentsio (2 edo gehiago) kontuan izanez aztertu du
Arazoaren eboluzioa edo/ eta konponbide baten ondorioak integratzea (4. maila)	Konponbide jakin batek izan ditzakeen ondorioak ez ditu aipatu	Konponbide jakin batek izan dezakeen ondorioaren bat aipatu eta aztertu du	Konponbide jakin batek izan dezakeen ondorioaren bat aipatu du eta jasangarritasunarekin erlazionatutako dimentsioren batekin integratu du	Konponbide jakin batek izan ditzakeen ondorio batzuk aipatu ditu eta jasangarritasunarekin erlazionatutako zenbait dimentsiorekin (2 edo gehiago) integratu du

4. Taula.G3: Estrategia gaitasuna ebaluatzeko errubrika: ikasketa emaitza mailakatuak eta ebaluazio irizpideak

G3. Estrategia-gaitasuna				
Ikasketa-emaitzak (Graduaren maila)	Ebaluazio irizpideak eta baremazioa			
	0	1	2	3
Jasangarritasun-arazo zehatzei aurre egin dieten planak aztertzea eta eztabaidatzea (3. maila)	Kanpainak bilatu ditu baina ez ditu G1eko ikuspegi ezberdinen arabera aztertu	Kanpainak bilatu ditu eta G1eko ikuspegi batzuen arabera aztertu ditu	Kanpainak bilatu ditu eta G1eko ikuspegi gehienaren arabera aztertu ditu	Kanpainak bilatu ditu eta G1eko ikuspegi gehienaren arabera aztertu ditu eta G2ko aurreikuspenen arabera aztertu ditu
Zuzentasuna: kontuan hartzen duten G1eko alor kopuruaren arabera baloratu.				

G3. Estrategia-gaitasuna				
Jasangarritasun-arazo zehatzei aurre egingo dien plana diseinatzea eta ebaluatzea (4.maila)	Plana diseinatu du baina ez ditu kontuan hartu G1eko ikuspegi ezberdinak.	Plana diseinatu du, G1eko ikuspegi batzuk kontuan hartu ditu eta horien arteko graduazioa islatu du	Plana diseinatu du, G1eko ikuspegi gehienak kontuan hartu du eta horien arteko graduazioa islatu du	Plana diseinatu du, G1eko ikuspegi guztiak eta G2ko aurreikuspenak kontuan hartu ditu eta horien arteko graduazioa islatu du
Zuzentasuna: • diseinuan kontuan hartzen duten G1eko alor kopuruaren arabera baloratu • ebaluazioan G2n aurreikusten diren ondorioen arabera baloratu.	Plana ebaluatu du baina ez ditu kontuan hartu bere ondorioak (G2)	Plana ebaluatu du eta bere ondorio batzuk (G2) hartu ditu kontuan soilik	Plana ebaluatu du eta kontuan hartu ditu bere ondorio gehienak (G2)	Plana ebaluatu du eta kontuan hartu ditu bere ondorio guztiak (G2)
Diseinuan eta ebaluazioan erantzukizun sozialerako ikuspegia baloratuko da	Ez ditu honako hauek kontuan hartu: hezkuntza-bideak, aniztasuna, portaera aldaketak sustatzea, elkartasuna, konpromezua.	Hauetakoren bat kontuan hartu du: hezkuntza-bideak, aniztasuna, portaera aldaketak sustatzea, elkartasuna, konpromezua.	Honako hauetako bi kontuan hartu ditu: hezkuntza-bideak, aniztasuna, portaera aldaketak sustatzea, elkartasuna, konpromezua.	Honako hautako hiru edo gehiago kontuan hartu ditu: hezkuntza-bideak, aniztasuna, portaera aldaketak sustatzea, elkartasuna, konpromezua.

4.3. IKASLEEN FEEDBACKA JASOTZEKO TRESNAK

Gradu osoan ikasleen gaitasunaren garapen mailaren pertzepzioa aztertzeke, inkestak erabil daitezke. Hau garrantzitsua izango da, batez ere, jasangarritasuna lehen aldiz ezartzeko saiakera bat burutzen denean, hasierako planteamendu teorikoak egokiago diren praktika errealetara doitu daitezzen behin betiko ezarpen-proposamenean. Egoera horretan, ikasleen iritzia maiztasun handiarekin jasotzea interesgarria izango da (irakasgai bakoitzean, proposatzen diren jardura bakoitzean edo ikasturteka). Bestalde, behin gaitasuna lantzeko proposamena garatuta, denboran honen jarraipena egitea erabilgarria izango da ere, egon daitezkeen hobekuntza aukerak identifikatu ahal izateko. Testuinguru horretan, ikasleen iritzia graduako une puntualetan har litezke, norberak behar duenean, esaterako jardura bat garatu aurretik eta ondoren, edo 1. mailaren hasieran eta gradua amaitzean.

Iritzi inkesta hauek izan dezaketen edukiari buruzko gida moduan, jarraian eskaintzen da balioztatua izan den galdera sorta (5. Taula), literaturan argitaratutako inkesten eredu jarraituz diseinatu dena. Hauetan gaitasunaren inguruko ikasleen pertzepzioak neurtzeko lau atal bereizten dira; 1) jasangarritasun gaitasunaren ezagutzaren pertzepzio orokorra; 2) azpigaitasunen lorpenean ikasleak duen aurrerakuntzaren pertzepzioa; 3) jasangarritasunaren eta graduaren arteko erlazioaren pertzepzioa eta 4) jasangarritasunarekiko ikasleen jarreraren pertzepzioa. Item bakoitzak sei erantzun posible izango ditu: 0-tik (batere ados) 4-ra (erabat ados), gradualki erantzuteko; eta ED, ez dakit. Lehenen eta bigarren atala ikasleek oinarrizko kontzeptuak bereganatu dituzten eta gaitasuna landu izanaren pertzepzioa duten ikusteko lagungarria dira. Hirugarren atalean, jasangarritasuna eta hainbat kontzepturen arteko lotura ikusteko gai diren aztertuko da, gradu konkretu bakoitzari dagozkionak. Gida honetan ematen den adibidean (5. Taula), Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduako adierazpenak aurkezten dira, baina horietariko asko baligarriak dira edozein gradutarako. Azken atalean, ikasleek jasangarritasunarekin daukaten jarreraren pertzepzioak jasotzen dira. Garrantzitsua da, balidazioaren ikuspuntutik, balio-eskalak txertatzea beste item-en artean, ausaz betetzen diren inkestak identifikatu ahal izateko. Balio-eskalak gaitasunarekin zerikusia ez daukaten gaien inguruan galdetzen duten kontrolerako galderak izango dira.

5 Taula. "Jasangarritasuna" gaitasunaren garapenari buruzko ikasleen iritzia neurtzeko inkesten edukia, Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduako esperientziarako balioztatutako galdetegiak adibide gisa hartuta.

Ebaluatutako alderdiak	Itemak
Jasangarritasun gaitasunaren ezagutzaren pertzepzio orokorra	Datozen esaldiekiko adostasun maila adierazi: (0, ez nago batere ados; 4, erabat ados nago; ED, ez dakit)
	<ul style="list-style-type: none"> • Graduako zeharkako gaitasunak ezagutzen ditut • Badakit definitzen garapen iraunkorra • Badakit definitzen gizarte erantzukizuna • Nire ustez, jasangarritasunak garrantzi handia dauka nire profesioan (dietista-nutrizionista) • Graduako zehar "jasangarritasuna" gaitasuna lantzen da
Azpigaitasunen lorpenean ikasleak duen aurrerakuntzaren pertzepzioa	Datozen esaldiekiko adostasun maila adierazi: (0, ez nago batere ados; 4, erabat ados nago; ED, ez dakit)
	G1: <ul style="list-style-type: none"> • Egoera batean inplikaturako dimentsioak zerrendatzeko gai naiz • Datu objektiboak erabiltzen ditut aipaturako dimentsioak aztertzeko • Dimentsioak elkarren artean erlazionatzeko gai naiz, arazo bat aztertzen nagoela
	G2: <ul style="list-style-type: none"> • Egoera baten bilakaera aurreratzeko gai naiz • Holistikoki aztertzen dakit egoera baten bilakaera • Interbentzio baten (hobekuntza erabakiak, planak, kanpainak...) ondorioei buruz holistikoki hausnartzeko gai naiz
	G3: <ul style="list-style-type: none"> • Indarrean dagoen akzio plan bat holistikoki analizatzeko gai naiz • Arazo bati aurre egingo dion akzio plan berri bat proposatzeko gai naiz • Badakit ikuspuntu holistikoa aplikatzen arazo baten aurreko akzio plan berri bat ebaluatzerako orduan
Jasangarritasunaren eta graduaren arteko erlazioaren pertzepzioa	Zer lotura dauka jasangarritasunak datozen gaiekin: (0, bat ere ez; 1, gutxi; 2, zerbait; 3, handia; 4, erabatekoa; ED, ez dakit)
	<ul style="list-style-type: none"> • Elikagai ekologikoak • Elikagaiak berrerabiltzea • Elikagaien jatorria • Elikagaien barne gertatzen diren erredox erreakzioak * • Elikagaiak ekoizteko ereduak • Elikagaien soberakinak eta beren kudeaketa • Elikadura ohiturak eta nutrizio-hezkuntza • Elikagaien balio energetikoa eta nutritiboa • Ingurumen kutsadurak elikagaietan duen eragina • Aholku dietetikoak • Desoreka nutrizionalarekin lotutako gaixotasunak
Jasangarritasunarekiko ikasleen jarreraren pertzepzioa	Zer maiztasunarekin burutzen dituzu honako ekintza hauek: (0, inoiz ez; gutxitan; 2, noizbehinka; 3, sarritan; 4, beti; ED, ez dakit)
	<ul style="list-style-type: none"> • Menu bat diseinatzerakoan garaiko produktuak aukeratzen ditut • Erosketa ondo planifikatzen dut soberakinak ez alperrik galtzeko • Elikagaiak erosterako orduan prezioa kontuan hartzen dut • Elikagaiak erosterakoan jatorria izaten dut kontuan (Km 0, ekoizpen lekua) • Elikagaiak erosterakoan ekoizpen ereduak hartzen ditut kontuan (ekologikoak, bidezko merkataritza, produktu industrialak, etab.) • Elikagaiak erosterakoan hauek sortuko dituzten hondakinak kontuan hartzen ditut • Talde batentzat elikagaiak erosterakoan kontuan hartzen dut gainerakoek adina • alde batentzat elikagaiak erosterakoan kontuan hartzen ditut gainerakoek alergia, intolerantzia edo patologiak • Talde batentzat elikagaiak erosterakoan kontuan hartzen dut gainerakoek egoera ekonomikoa • Aurreztutako dirua burtsan inbertitzen dut* • Fruta edo/eta barazkiak garbitzean ura neurritz erabiltzen dut • Elikagai-soberakinak aprobetxatzen ditut, egoera onean daudenak ez botatzeko • Zabor mota guztiak egokiro banatzen ditut (papera-kartoiak, plastiko-ontziak, olioak, organikoak, beira) • Frijitze-olioa berrerabiltzen dut

*Balio-eskalak. G: Gaitasuna

Interesgarria izan daiteke galdera osagarriak erabiltzea ere, lantzen diren jardueren ondorengo balizko portaera aldaketak aztertzeko. Bi item proposatzen dira aldaketa posiblearen eragileak identifikatzeko (unibertsitatetik kanpoko ekintzak, irakasleak, telebista...) (6. Taula). Azkenik, prozesua hobetzeko ideiak eskatzeko aukera ere badago. Ideia hauek gaitasuna lantzeko oso lagungarriak izan daitezke eta.

6.Taula. Jasangarritasunarekiko jarrera-aldaketaren pertzepzioa neurtzeko atalak, jarduerak burutu osteko inkestetan.

Jarrera-aldaketaren pertzepzioa	Zure jarrera aldatu al da jasangarritasunaren inguruan? (0, bat ere ez; 1, gutxi; 2, zerbait; 3, asko; 4, erabat. ED, ez dakit)
	Aldaketa egon bada, zeri zor zaio? (0, bat ere ez; 1, gutxi; 2, zerbait; 3, asko; 4, erabat. ED, ez dakit)
	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleei • Irakasgaietako jarduera espezifikoei • Familiari, lagunei, pisu kideei, etab. • Telebistari • Bestelakoei (zehaztu):


5. ESPERIENTZIA GIZA NUTRIZIOKO ETA DIETETIKAKO GRADUAN

Gida honek jasangarritasuna graduatan era mailakatuan eta koordinatuan garatzeko proposamen generiko zabala egitea helburu duen arren (beste edozein gradutan aplikatu litekeena), esperientzia konkretuetan garatutako ezagutzan oinarritzen da, GND Graduan, hain zuzen ere. Izan ere, eranskinetan eskaintzen diren hurbilketa metodologikoak gradu horretara bideratuta daude. Dena den, argitu beharra dago jasangarritasuna garatzeko edozein proposamenek jasotzaileen arabeko kontzeptualizazio espezifikoak izan beharko duela; hots, irakaskuntzaren praktika ikasleen profila kontuan hartuta moldatu beharko da (Pauw eta lag., 2015; Stough eta lag., 2018).

GNDk aitortua dauka osasun arloko profesio izaera eta graduatuen profilari lotzen zaizkion zeharkako gaitasunen artean honako hau dago jasota CIN/730/2009 Aginduan: *“Nutrizionista-dietisten lanbidearen funtsezko elementuak ezagutzea, haien etika, legezko erantzukizunak eta justizia sozialari buruzko printzipioak barne, bai eta haien praktika profesionalei nola aplikatzen zaizkien ere. Herritarrak errespetatuta garatu behar dira, haien ohiturak, kulturak eta sinesmenak kontuan hartuta”*; eta, halaber, *“Elikagaien, nutrizioari eta elikadura segurtasunari buruzko politikak planifikatzen lagundu behar dute, herritarren benetako beharretan eta osasunaren babesean oinarrituta”*.

Generikoki planteatzen diren gaitasun hauek curriculumean jasangarritasuna txertatzearen beharra inplikatu dute. UPV/EHUko GND Graduan jasangarritasuna bultzatzeko jardura zehatzak gauzatu badira ere (Bustamante eta lag., 2016) gaitasunaren lanketa integralean beharra ikusi zen. Hori dela eta, “ZEHARGAITUZ” taldeak jarri zuen abian 2016an GND Graduoko hezkuntza-irakaskuntza prozesuan jasangarritasuna garatzea eta sustatzea helburua duen proiektua. Graduan zehar eta dietista-nutrizionista lanbidean gaitasun hori barneratzea bilatzen duen proiektuak, jasangarritasuna zeharkako alderditzat hartuz eta modu mailakatu eta antolatuan garatuz, metodologia aktiboen bidez.

Gidako aurreko atalean deskribatu da gaitasunaren ezarpena era mailakatuan egin beharra eta hau egiteko gida orokorra eskaini da. 2. irudiko eskeman GND Graduan egin den ezarpen mailakatu kontsulta daiteke.



2. Irudia. Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduan, ikasturtez ikasturte eta irakasgai desberdinetan gaitasunen lanketa progresiboa nola ezarri den adierazten da irudian, kasu bakoitzerako irakasgaiaren kalifikazioetan emandako portzentajea barne. G: Gaitasuna; GP: Gidaritzapeko praktikak; GrAL: Gradu Amaierako Lana.

Horretaz gain, GND Graduan proposaturiko metodologia aktiboak 7. Taulan zerrendatu dira eta ERANSKINETAN daude sakon deskribatuta.

7 Taula . Proposatutako metodologia aktiboak Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduan.

Maila	Irakasgaia	Metodologia aktiboa
1	Legeria, deontologia eta kudeaketa	Kasuaren metodoa
	Elikagaien Kimika eta Biokimika	Talde-jarduerak
2	Giza Nutrizioa	Konbergentzia-dibergentzia bikoitza
3	Dietetika Orokorra eta Aplikatua	Kasuaren metodoa
	Elikagaien Kalitatea eta Segurtasuna	Rol-jokoa / Konbergentzia-dibergentzia bikoitza
	Nutrizio-epidemiologia	Kasuaren metodoa
4	Nutrizioa eta Dietetika Talde-espezifikoetan	Kasuaren metodoa

Metodologia aktibo bakoitza edozein mailatan erabil daiteke, beti ere gaitasunak sakontasun egokiarekin jorratzen badira, mailaren arabera egokituta; garrantzitsuena hauen lanketa graduala izatea da.

Aurreko guztia inplementatua izan da dagoeneko, emaitza interesgarriekin, *Journal of Cleaner Production* aldizkarian (Navarro eta lag., 2020) argitaratu direnak. Lan horretan agerian geratzen diren emaitza eta alderdi aipagarrienak honako hauek dira: proposatutako jarduerak jasangarritasunari dagozkion ezagutza kontzeptualetan inpaktu positiboa dute eta ikasleek positiboago baloratzen dute beren burua GNDarekin lotura espezifikoa duten jasangarritasun alderdietan, orokor eta inespezifikoetan baino. Gainera, gaitasuna lantzeko ikasleen emozioen garrantzia azpimarratu zen, jasangarritasunarekiko jarrera aldatzeko oinarritzko alderdia baitira.

Proiektuak diseinu longitudinala dauka. UPV/EHUko Etika Batzordearen oniritzia jasota, ikasleen ibilbidearen jarraipena egiten da, lehen mailatik hasi eta laugarrenera arte. Urte horietan gaitasunak ebaluatzen eta kalifikatzen dira, horretarako berariaz sortutako erubirikak erabiliz, gidan jasotako proposamenetik abiatuta. Diseinu esperimental

elkarren segidako bi belaunaldiren jarraipenean oinarritzen da, esperientzia osoaren bi errepikapen bermatzeko.

Gaitasunaren garapen fasean, gainera, ezinbestekoa da kontrol-talde bat izatea, gaitasuna lantzen ez duena, eta esperimentu-taldeekin aldera daitekeena. Diseinu hau arrakastatsua izan dadin, egoera sozio-demografiko antzekoa daukaten taldeak izan behar dira. UPV/EHU hori lortzeko bideetako bat hizkuntza ezberdinetan ikasten ari diren ikasleen alderatzea izan daitekeenez, hala egin da. Antolaketa desberdina duen beste instituzio batean, estrategia egokiak bilatu beharko dira.

Gainera, ikasleen iritziak jaso dira aipatutako balioztatutako galdetegi espezifikoen bitartez. Hauetan ikasle bakoitzaren datu orokorrak jasotzen dira (kodea, sexua, adina eta maila, etab.), beti anonimotasun bermea mantenduz.

Garrantzitsua da kodifikazio-sistema sendo bat eraikitzea erantzunak izengabekoak izateko eta hasieran zein amaieran lortutako inkestak parekatu ahal izateko (adibidez, irakasgaiaren hasieran eta amaieran edo graduaren 1.mailan eta 4.goa amaitutakoan jasotakoak, beti ere ezarri den diseinuaren arabera). Kodetze sistema gidatzea komeni da, ikaslearentzat gogoratzeko errazak eta errepikagarriak diren aldagaiez osatzea proposatuz. Esaterako, jaiotze-data, telefono zenbakiaren azken hiru digituak eta ikasturte edo mailarekin osa liteke kodea; modu honetan "uuuu.hh.ee-ZZZ-maila" moduko kode egitura bat proposatuz "2002.03.12-534-3" kodea osa liteke. Garrantzitsua da kode hauek ondo osatzearen garrantzia argiro transmititzea ikasleei.

6. IDEIA NAGUSIAK

- Jasangarritasuna etorkizuneko profesionalek garatua eta jardunean integratua eduki beharreko zeharkako gaitasuna da. Etorkizuneko profesionalak modu jasangarrian aritzeko beharrezkoa da unibertsitatean gaitasuna ezartzea eta lantzea. Hori dela eta, gaur egun, edozein unibertsitatek erronka honi aurre egiteko, bere graduetako gaitasunen zerrendan gehitu beharreko eta irakasgaien gidetan jaso beharreko kompetentzia da. Irakasleek beraien irakasgaien programa zehatzetan zeharkako gaitasun hau ezartzea eta lantzea beharrezkoa da.
- Edozein irakasleko doirakasletalde bere irakasgaietan jasangarritasuna landu nahi izanez gero, lehenik eta behin gaitasunaren hiru alderdiak hartu beharko ditu kontutan: ikuspegi holistikoa, aurreikuspen gaitasuna eta estrategia gaitasuna.
- Jasangarritasuna gradualki garatu behar da unibertsitate graduaren ikasturtez ikasturte. Horretarako eredu baliagarria eskaintzen du Bloomen taxonomiak. Honek laguntzen du ikasketa-helburuak ikaslearen heldutasun mailara eta garatze-erritmora egokitzen.
- Jasangarritasuna metodologia aktibo eta kooperatiboetan zein talde-dinamiketan lantzea gomendatzen da, ikasleak garapen-jasangarriak berarekin dakartzan ezinbesteko egiteko moduetan eta baloreetan trebatu daitezela.
- Gida erraminta praktikoa eta erabilgarria gisa eskaintzen da interesa izan dezaketen ikasketa-zuzendari zein irakasle taldeentzat. Bertan gaitasunaren eta bere ikasketa-emaitzen definizioa, metodologia, jardura konkretuak eta ebaluazioa deskribatzen dira; guztia modu mailakatuan, lehenengo kurtsotik hasita Gradu Amaierako Lanera arte. Halaber, gaitasunaren garapenari buruz eta proposatzen diren jardueri buruz ikaslearen iritzia jasotzeko tresnak ere proposatzen dira.
- Esperientzia zehatz batetik sortutako gida denez, bertan erabilitako baliabide didaktiko espezifikoak ere eskaintzen dira. Dena den, ahalik eta modu generikoenean aurkezten dira, beste testuinguru batzuetara aplikatzeko aukera irekita uzteko. Kasu horretan gaitasuna zein sakontasunekin garatu nahi den hausnartuta eta eduki espezifikoak egokituta, gida honetan proposatzen diren ildo eta jarduerak dagokion unibertsitatearen graduaren, zein irakasgaiaren errealitatera doitzea proposatzen dute autoreek.

7. BIBLIOGRAFIA

4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duena, abenduaren 21ekoa, unibertsitateei dagokiona. EAO 89 znb., 2007ko apirilaren 13koa.

Albareda-Tiana, S., Ruíz-Morales, J., Azcárate, P., Valderrama-Hernández, R., & Muñoz, J. M. (2020). The EDINSOST project: Implementing the sustainable development goals at university level. In *Universities as Living Labs for Sustainable Development* (pp. 193-210). Springer, Cham.

Álvarez-Suárez, P., Vega-Marcote, P., eta Garcia Mira, R. (2013). Sustainable consumption: a teaching intervention in higher education. *International Journal of Sustainability in Higher Education*, 15(1), 3-15. <https://doi.org/10.1108/IJSHE-06-2011-0044>

Anderson, L. (2015). *Developing Key Sustainability Competencies through Real-World Learning Experiences: Evaluating Community Environmental Services* [Portland State University]. https://pdxscholar.library.pdx.edu/open_access_etds/2316.

ANECA (Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación) (2013). Guía de apoyo para la redacción, puesta en práctica y evaluación de los resultados del aprendizaje. Eskuragarri hemen 2019ko otsailaren 28an: <http://www.aneca.es/Sala-de-prensa/Noticias/2013/ANECA-presenta-la-Guia-para-la-redaccion-y-evaluacion-de-los-resultados-del-aprendizaje>

Aranzabal, A. (2014). Enfoque "Aprendizaje Basado en Proyectos" para enseñar sistemas de potencia de gas y vapor. *@tic. revista d'innovació educativa*, 13, 138-148. <https://doi.org/10.7203/attic.13.3904>

Ashmann, S., eta Franzen, R. L. (2017). In what ways are teacher candidates being prepared to teach about the environment? A case study from Wisconsin. *Environmental Education Research*, 23(3), 299-323. <https://doi.org/10.1080/13504622.2015.1101750>

Aznar, P., eta Ull, M. A. (2009). Education in basic competences for sustainable development. The role of University. *Revista de Educación, Extra vol*, 219-237.

Barlett, P., eta Chase, G. (2004). *Sustainability on Campus: Stories and Strategies for Change (Urban and Industrial Environments)*. MIT Press, Cambridge, MA.

Bloom, B. S., eta Krathwohl, D. R. (1956). *Taxonomy of educational objectives: the classification of educational goals*. Longmans, Green.

Brundiers, K., eta Wiek, A. (2013). Do We Teach What We Preach? An International Comparison of Problem- and Project-Based Learning Courses in Sustainability. *Sustainability*, 5(4). <https://doi.org/10.3390/su5041725>

Bustamante, M. Á., Miranda, J., Simon, E., Larretxi, I., Txurruka, I., eta Lasa, A. (2016). An Approach to Develop Sustainability in a Subject of Human Nutrition and Dietetics Degree, a Pilot Experience. *Procedia - Social and Behavioral Sciences*, 228, 243-248. <https://doi.org/10.1016/j.sbspro.2016.07.036>

CIN/730/2009 Agindua, martxoaren 18koa, dietista-nutrizionista lanbidean jarduteko gaitzen duten unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituen. EAO, 73 znb., 2009ko martxoaren 26koa.

Collins, J. W., eta O'Brien, N. P. (2003). *The Greenwood Dictionary of Education*. Greenwood Press.

CRUE (2005). Guidelines for the Inclusion of Sustainability in the Curriculum. Hemen eskuragarri 2019ko otsailaren 28an: http://www.crue.org/Documentos%20compartmentos/Declaraciones/Directrices_Sostenibilidad_Crue2012.pdf

Ertmer, P. A., eta Newby, T. J. (2013). Behaviorism, Cognitivism, Constructivism: Comparing Critical Features From an Instructional Design Perspective. *Performance Improvement Quarterly*, 26(2), 43-71. <https://doi.org/10.1002/piq.21143>

Etaio, I., Churrua, I., Rada, D., Miranda, J., Saracibar, A., Sarrionandia, F., Lasa, A., Simón, E., Labayen, I., eta Martínez, O. (2018). Cross-curricular skills development in final-year dissertation by active and collaborative methodologies. *Interactive Learning Environments*, 26(2), 175-188. <https://doi.org/10.1080/10494820.2017.1283337>

Eusko Jaurlaritzak (2018). 2030erako Euskadiko jasangarritasunerako hezkuntza estrategia. Hemen eskuragarri 2019ko martxoaren 12an: http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/estrategiaeducacion2030/eu_def_adjuntos/2030JasangarritasunerakoHezkuntzaEstrategia.pdf

Frame, T. R., Cailor, S. M., Gryka, R. J., Chen, A. M., Kiersma, M. E., eta Sheppard, L. (2015). Student Perceptions of Team-based Learning vs Traditional Lecture-based Learning. *American journal of pharmaceutical education*, 79(4), 51-51. <https://doi.org/10.5688/ajpe79451>

Freeman, S., Eddy, S. L., McDonough, M., Smith, M. K., Okoroafor, N., Jordt, H., eta Wenderoth, M. P. (2014). Active learning increases student performance in science, engineering, and mathematics. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America*, 111(23), 8410-8415. <https://doi.org/10.1073/pnas.1319030111>

Leal Filho, W., Brandli, L. L., Becker, D., Skanavis, C., Kounani, A., Sardi, C., Papaioannidou, D., Paço, A., Azeiteiro, U., de Sousa, L. O., Raath, S., Pretorius, R. W., Shiel, C., Vargas, V., Trencher, G., eta Marans, R. W. (2018). Sustainable development policies as indicators and pre-conditions for sustainability efforts at universities. *International Journal of Sustainability in Higher Education*, 19(1), 85-113. <https://doi.org/10.1108/IJSHE-01-2017-0002>

Leal Filho, W., eta Manolas, E. (2011). Making sustainable development in higher education a reality: Lessons learned from leading institutions. In *GUNI Higher Education in the World 4: Higher Education's Commitment to Sustainability from Understanding to Action* (pp. 28-31). Pallgrave Macmillan.

Leal Filho, W., Wu, Y.-C. J., Brandli, L. L., Avila, L. V., Azeiteiro, U. M., Caeiro, S., eta Madruga, L. R. d. R. G. (2017). Identifying and overcoming obstacles to the implementation of sustainable development at universities. *Journal of Integrative Environmental Sciences*, 14(1), 93-108. <https://doi.org/10.1080/1943815X.2017.1362007>

McCormack, O., eta O'Flaherty, J. (2010). An examination of pre-service teachers' attitudes towards the inclusion of development education into Irish post-primary schools. *Teaching and Teacher Education*, 26(6), 1332-1339. <https://doi.org/10.1016/j.tate.2010.02.008>

- Mitchell, I. K., eta Walinga, J. (2017). The creative imperative: The role of creativity, creative problem solving and insight as key drivers for sustainability. *Journal of Cleaner Production*, 140, 1872-1884. <https://doi.org/https://doi.org/10.1016/j.jclepro.2016.09.162>
- Navarro, V., Martínez, O., Miranda, J., Rada, D., Bustamante, M. Á., Etaio, I., Lasa, A., Simón, E., eta Churruca, I. (2020). Including aspects of sustainability in the degree in Human Nutrition and Dietetics: An evaluation based on student perceptions. *Journal of Cleaner Production*, 243, 118545. <https://doi.org/https://doi.org/10.1016/j.jclepro.2019.118545>
- O'Byrne, D., Dripps, W., eta Nicholas, K. A. (2015). Teaching and learning sustainability: An assessment of the curriculum content and structure of sustainability degree programs in higher education. *Sustainability Science*, 10(1), 43-59. <https://doi.org/10.1007/s11625-014-0251-y>
- O'Flaherty, J., eta Liddy, M. (2018). The impact of development education and education for sustainable development interventions: a synthesis of the research. *Environmental Education Research*, 24(7), 1031-1049. <https://doi.org/10.1080/13504622.2017.1392484>
- Pauw, B. J., Gericke, N., Olsson, D., eta Berglund, T. (2015). The Effectiveness of Education for Sustainable Development. *Sustainability*, 7(11). <https://doi.org/10.3390/su71115693>
- Perez Salgado, F., Abbott, D., eta Wilson, G. (2018). Dimensions of professional competences for interventions towards sustainability. *Sustainability Science*, 13(1), 163-177. <https://doi.org/10.1007/s11625-017-0439-z>
- Prince, M. (2004). Does Active Learning Work? A Review of the Research. *Journal of Engineering Education*, 93(3), 223-231. <https://doi.org/10.1002/j.2168-9830.2004.tb00809.x>
- Sepetis, A., Goula, A., Kyriakidou, N., Rizos, F., eta Sanida, M. G. (2020). Education for the Sustainable Development and Corporate Social Responsibility in Higher Education Institutions (HEIs): Evidence from Greece. *Journal of Human Resource and Sustainability Studies*, 8(2), 86-106.
- Shephard, K., Rieckmann, M., eta Barth, M. (2018). Seeking sustainability competence and capability in the ESD and HESD literature: an international philosophical hermeneutic analysis. *Environmental Education Research*, 25(4), 532-547. <https://doi.org/10.1080/13504622.2018.1490947>
- Stough, T., Ceulemans, K., Lambrechts, W., eta Cappuyens, V. (2018). Assessing sustainability in higher education curricula: A critical reflection on validity issues. *Journal of Cleaner Production*, 172, 4456-4466. <https://doi.org/https://doi.org/10.1016/j.jclepro.2017.02.017>
- Tilbury, D. (2011). Higher education for sustainability: a global overview of commitment and progress. In *GUNI Higher Education in the World 4: Higher Education's Commitment to Sustainability from Understanding to Action* (pp. 18-28). Pallgrave Macmillan.
- Ull, M. A., Martínez, M. P., Piñero, A., eta Aznar, P. (2010). Análisis de la introducción de la sostenibilidad en la enseñanza superior en Europa: compromisos institucionales y propuestas curriculares. *Revista Eureka sobre Enseñanza y Divulgación de las Ciencias*, 7, extra, 413-432.
- UNESCO. (2005). *Decade of Education for Sustainable Development*. Hemen eskuragarri 2019ko martxoaren 28an: <https://en.unesco.org/themes/education-sustainable-development/what-is-esd/un-decade-of-esd>

- UPV/EHU (2018). EHU-agenda 2030. Hemen eskuragarri 2019ko martxoaren 9an: <https://www.ehu.es/eu/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>
- UPV/EHU (2019). UPV/EHUren zeharkako gaitasunen katalogoa. Hemen eskuragarri 2020ko ekainaren 22an: <https://www.ehu.es/documents/1432750/12757375/Zeharkako+gaitasunen+katalogoa.pdf/8e229174-7996-5b14-1fed-d1ef6a292661>
- Valderrama Hernández, R., Alcántara Rubio, L., Sánchez Carracedo, F., Caballero Franco, D., Serrate González, S., Gil Doménech, M. D., ... & Miñano Rubio, R. (2020). ¿ Forma en sostenibilidad el sistema universitario español?: visión del alumnado de cuatro universidades. *Educación XX1: Revista de la Facultad de Educación*, 23(1), 221-245.
- Vega-Marcote, P., Varela-Losada, M., eta Álvarez-Suárez, P. (2015). Evaluation of an Educational Model Based on the Development of Sustainable Competencies in Basic Teacher Training in Spain. *Sustainability*, 7(3), 2603-2622. <https://doi.org/10.3390/su7032603>
- Watson, M. K., Lozano, R., Noyes, C., eta Rodgers, M. (2013). Assessing curricula contribution to sustainability more holistically: Experiences from the integration of curricula assessment and students' perceptions at the Georgia Institute of Technology. *Journal of Cleaner Production*, 61, 106-116. <https://doi.org/10.1016/j.jclepro.2013.09.010>
- Wiek, A., Withycombe, L., Redman, C., eta Mills, S. B. (2011). Moving Forward on Competence in Sustainability Research and Problem Solving. *Environment: Science and Policy for Sustainable Development*, 53(2), 3-13. <https://doi.org/10.1080/00139157.2011.554496>
- Zeegers, Y., eta Francis Clark, I. (2014). Students' perceptions of education for sustainable development. *International Journal of Sustainability in Higher Education*, 15(2), 242-253. <https://doi.org/10.1108/IJSHE-09-2012-0079>

8. ERANSKINA: gaitasuna lantzeko jarduerak

Gaitasuna lantzeko jardueren adibideak: irakasgaietako fitxak

TITULAZIOA	GIZA NUTRIZIOA ETA DIETETIKA		
IKASGAIA	LEGERIA, DEONTOLOGIA ETA KUDEAKETA		
Maila:	1	Lauhilekoa	2

LEGERIA, DEONTOLOGIA ETA KUDEAKETA irakasgaia Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduko 1. Mailan ikasten da, 2. Lauhilekoan. 6 kreditu ditu (4 teoriko eta 2 praktiko). Irakasgaia bi ataletan bereizita dago eduki eta dinamika aldetik: alde batetik legeria eta deontologia eta, bestetik, kudeaketa. Legeria eta Deontologian lantzen diren edukien parte handi bat, metodologia aktibo eta kooperatiboen bidez lantzen da, kasu praktiko baten bidez. Honen baitan, zeharkako gaitasunak ere lantzen dira, besteak beste, informazio bilaketa, idatzizko eta ahozko komunikazioa eta jasangarritasuna eta gizarte erantzukizuna.

JARDUERA: Jasangarritasuna eta gizarte erantzukizuna elikagaien ekoizpenean

AURKEZPENA:

Zer landuko da: jarduera honetan elikagai zehatz bat ekoizteko prozedura proposatzen da. Ikasleek hori aztertuko dute, jasangarritasunaren eta gizarte erantzukizunaren inguruko hausnarketa eginez.

Zer gaitasun landuko da: gaitasun holistikoa landuko da.

Metodologia: Kasuaren metodoa. Banakako eta taldeko lanak egingo dira.

Aurreikusitako ordu kopurua: 5 ordu (2 presentzial eta 3 ez-presentzial)

Amaierako ebaluazioan portzentajea: % 4.

JARDUERA-FITXA

Gure etxean beti izan dira sagarrak(*). Aitona Pacok sagarrondoak zeuzkan baserri ondoko landan. Oso oparoa zen eta urteroko uzta familia eta herriko lagunen artean banatzeko beste ematen zuen. Zapore itzela zeukaten sagar haiek eta urte osoan jaten genituen bai fruta gisa eta bai pastel, zuku, fruta lehor edo konfitaturik. Baina aitonak duen adinagatik sagarren kudeaketa egiten ez duenetik, fruta pilo bat izaten da soberan eta etxeko biltegian usteltzen zaigu parte handi bat.

Hori dela eta sagar-zuku %100 naturala ekoiztu eta saltzea ideia ona izan litekeela iruditu zaizu; azken urteetan ikasitakoan oinarrituko zara horretarako. Gainera, azken boladan asko irakurri duzu sagarrek dituzten substantzia antioxidanteen inguruan. Beraz, ez duzu zuku soila ekoiztiko, baizik eta ezaugarri funtzionalak dituen produktua. Alderdi hau sakon aztertu beharko duzula pentsatu duzu, izan ere salmentan kontuan hartzeko balio erantsia izan baitezake alderdi honek.

(*) Aztertzen den produktu mota urtez urte alda daiteke, baina ez egin beharreko lana.

Galdere gakoak:

- Produktua edo ekoizpen-prozesua jasangarria al da?
- Gizartearekiko erantzukizunez jokatzeko ari zara?
- Alderdi hauetan hobekuntza proposamenik?

Material gehigarria: Kasu praktikoaren barne garatzen den ariketa da eta materiala eskuragarri dago eGelan: kasuaren enuntziatua, oinarritzko bibliografia, metodologiari buruzko argibideak eta ebaluazio errubrikak.

Martinez O. (2014). Biziki, baserriko jogurt osasungarria. IKD baliabideak 8. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/13936>

ILDOA: Kronograma eta entregagaiak **

Entregagaia	Jardueraren garapena	Jaso behar duen informazioa
Banakako lana	Lehen fase batean ikasleek banakako ebazpen bat landuko dute.	Erantzun beharreko galdera beti izango da: <i>"Produktua edo ekoizpen-prozesua jasangarria al da? Gizartearekiko erantzukizunez jokatzeko ari zara? Alderdi hauetan hobekuntza proposamenik?"</i>
Talde-lana (1. bertsioa)	Lan-taldeetan elkartu (4-5 taldekide) eta komuna den bertsioa osatzen dute, banakako ekarpenak elkartuz.	
Talde-lana (2. bertsioa)	Lana talde txikietan, klasean (saio gidatuak)	Erantzuna lantzen, osatzen eta hobetzen joango dira lauhilekoan egiten diren jardueraz-jarduera (banakako lanaren zuzenketa, talde kideen ekarpenak, klaseko eztabaidak eta elkarrekiko zuzenketa)
Behin behineko talde-lana	Klaseko eztabaida osoko bilkuran, talde bakoitzaren ebazpenak konpartitzeko eta hobetzeko	
Behin betiko talde-lana	Taldean elkarrekiko zuzenketa	

**Kontuan hartu behar da jasangarritasuna kasu praktiko zabalago baten baitan lantzen dela, kasu osorako erabiltzen diren jarduerak eta metodologia berdinak jarraituz. Eman dezake entregagai eta jarduerak asko direla azken kalifikazioan %4ko pisua izateko, baina, egia esan, jasangarritasun gaiak jarduerak horietan zehar parte txiki bat dira (kasuan erantzun behar diren 6 galdera gakoetatik batek inplikatzeko dituzten jasangarritasun alderdiak).

Ebaluazio irizpideak eta tresnak. Kalifikazioa

Lana zuzendu ahal izateko, ikasleek lanari buruzko feedbacka jasoko dute hainbat unetan: banakako lanari irakasleak egiten diren zuzenketa bidez, talde txikietan lan egiten diren hiru saioen ostean, osoko bilkuretan eta ikaskideen elkarrekiko zuzenketa bitartez ere bai.

EBALUATUKO DENA	EBALUAZIO TRESNA	NOTAREN EHUNEKOA
Banakako txostena	Ebaluazio errubrika (G1)	% 20
Osoko bilkuretako parte-hartzea	Ebaluazio errubrika (G1)	% 10
Elkarrekiko zuzenketa	Ebaluazio errubrika (G1)	% 20
Behin betiko txostena	Ebaluazio errubrika (G1)	% 50

Feedbacka:

Irakasleak entregagai bakoitza zuzenduko du eta ikasleari bueltatuko dio hezkuntzarako plataforma birtualaren bitartez. Modu horretan ikasleak zein zuzenketa egin behar dituen eta entregagaia nola osatu behar duen jakingo du.

TITULAZIOA	GIZA NUTRIZIOA ETA DIETETIKA		
IKASGAIA	ELIKAGAIEN KIMIKA ETA BIORKIMIKA		
Maila:	1	Lauhilekoa	2

ELIKAGAIEN KIMIKA ETA BIORKIMIKA irakasgaia Giza Nutrizio eta Dietetika Gradu 1. Ikasturtean ikasten da. 6 kreditu ditu (4,5 teoriko eta 1,5 praktiko) eta bigarren lauhilabetean irakasten da. Lehenengo urte honetan beste oinarrizko beste zientzia batzuekin irakasten da (Biokimika, kimika orokorra eta organikoa, etab). Hau beste oinarrizko irakasgaietarako ezinbestekoa da, hala nola, Bromatologia, hurrengo lauhilabetean ikasten dena, bigarren maila, eta ikasgai honen ezagutza eskatzen duena.

JARDUERA: Oxidazio lipidikoa eta olioien erabilera frijitzeko

AURKEZPENA:

Zer landuko da: Olioien eta olioien erabilerari buruz gizartean dauden aurreiritziak, ideiak eta sineskeriak identifikatuko dira. Olioien oxidazioa moteltzean/azkartzean eragina daukaten faktoreen inguruko hausnarketa garatuko da.

Olioien erabilerak eta berrerabiltzeak hainbat arloekin (osasuna, ingurumena, ekonomia,...) duten lotura identifikatu.

Horrela, elikadura, nutrizio eta elikadura-segurtasunaren arloko politika-plangintza eta garapena landuko da, populazioaren premiak eta osasunaren babesa oinarri hartuta.

Zer gaitasun landuko da: ikuspegi holistikoa eta aurreikuspen gaitasunak landuko dira

Metodologia: Inkesten bidez garatuko da lan hau, hortik ateratako erantzunak/emaitzak aztertu egin behar dituzte.-

Aurreikusitako ordu kopurua: 4 orduko jarduera da (2 presentzialak eta 2 ez-presentzialak)

Ebaluazioan duen portzentajea: % 4

JARDUERA-FITXA

Elikadura-sistemaren jasangarritasuna gakoa da gizarte jasangarria izateko, eta, beraz, elikaduraren alderdi guztietan landu behar da. Adibidez, frijitzeko olioak etxe guztietan dauzkagun osagaiak dira, baina bere kutsadura-potentziala gutxiesten dugu, oso handia izan arren.

Jarduera honetan, olio horiek erabiltzeari eta birziklatzeari, horien segurtasunari eta erabilera-gomendioei buruz kontsumitzaileek duten pertzepzioa aztertu nahi da. Era berean, ikasgelan landutako ezagutza kontrastatzera animatzen dira ikasleak, gai honen inguruan iritzi propioa, kritikoa eta oinarrizkoa lor dezaten.

Galdera gakoa:

Zeintzuk dira jendeak, oro har, olioien eta olioien erabileraren inguruan dituen iritzi/aurreiritzi nagusiak?

ILDOA: Kronograma eta entregagaiak

Entregagaia	Jardueraren garapena	Jaso behar duen informazioa
1. entregagaia	Ikasleek jendartean dagoen olioaren eta olioaren erabileraren inguruko uste batzuen inguruan informazioa jasoko dute.	Olioari buruz eta olioaren erabilerari buruz galdetegiak emaitzak jaso eta ebaluatu
2. entregagaia	Inkestaren emaitzak jaso eta komunean jarri taldeka, aurreiritziak identifikatzeko Fitxa bete, aurreiritziak agerian jarri.	Identifikatutako usteetan oinarrituta diagnostiko bat egin, irakasgaiaren edukiak aplikatu eta lotu
3. entregagaia	Olio motek eta berrerabilerak hainbat arlotan dituen eraginak identifikatu. Fitxa zuzenduta, bueltatu eta komentatu.	Gizartean dauden aurreikusiak, ideak edo mitoak olioaren eta bere erabileraren inguruan. Gai hau hainbat arlotan (osasuna, kultura, ekonomia,...) duen eragina neurtu eta ebaluatu

Ebaluazio irizpideak eta tresnak. Kalifikazioa

Ikasleak talde bakoitzaren erantzunak jasoko ditu (orri bat taldeko guztien izenak jarrita) eta zuzenduko ditu (gero bueltatuko zaizkie zuzenduta).

EBALUATUKO DENA	EBALUAZIO TRESNA	NOTAREN PORTZENTAJEA
1. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G1)	%50
2. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G1)	
3. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G1)	%50

TITULAZIOA	GIZA NUTRIZIOA ETA DIETETIKA		
IKASGAIA	GIZA NUTRIZIOA		
Maila:	2	Lauhilekoa	2

GIZA NUTRIZIOA irakasgaia Giza Nutrizio eta Dietetika Gradu 2. ikasturtean ikasten da. 9 kreditu ditu (6 teoriko eta 3 praktiko) eta bigarren lauhilabetean lantzen da. Dietetika irakasgaiaren oinarriak ezartzeko helburuarekin, Giza Nutrizioa irakasgaietan nutrienteen erabilera ikasten da, horien beharrak eta elkarrekintzak azpimarratuz. Nutrienteen gabeziak eta gehiegikeriak definitzea, eta horiei aurre egiteko modua ere lantzen da.

JARDUERA:	Elikadura beste kanpainaren baten beharrak ba al dago?		
1. Azpijarduera	Murgiako bozio kasuen inguruko larrialdi bilera		
2. Azpijarduera	Haragi prozesatuak, arriskua osasunerako?		

AURKEZPENA:

Zer landuko da: Arazoan parte hartzen duten pertsona eta faktore guztiak definituko dira eta bere garrantzia aztertuko da arazoaren bilakaeran. Era berean, arazoaren bilakaeraren adierazleak definituko dira, nutrizioarekin zerikusia duten proposamenak emateko. Horretarako, nutrienteen bio-erabilgarritasuna, nutriente gabezia eta gehiegikeria, elikagaien kontsumoa aztertuko da eta ohitura dietetikoekin erlazionatuko dira.

Zer gaitasun landuko da: Irakasgai honetan **gaitasun holistikoa eta aurreikuspen gaitasunak** landuko dira.

Metodologia: Dibergentzia-konbergentzia bikoitzaren teknika zein roll playing teknikak erabiliko dira.

Aurreikusitako ordu kopurua: 8 ordu (3 presentzialak eta 5 ez-presentzialak)

Ebaluazioan duen portzentajea: %5.

JARDUERA-FITXA

1. AZPIJARDUERA: MURGIAKO BOZIO KASUEN INGURUKO LARRIALDI BILERA

Demagun Osakidetzak egindako azken ikerketen arabera Murgiako umeek bozio intzidentzia gehiago dutela. Antzinako kontua zena, berriro agertu da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Tratamendu farmakologikoa ekidin nahian, beste mota bateko jarduerak martxan jarri nahi dira. Osasun eta kontsumoko kontseilariak krisialdiko bilera batera deitu ditu bere aholkulariak arazoari irtenbide bat topatzeko.

Zuek bilera horretako partaideak izango zarete eta arazoan parte hartzen duten pertsona eta faktore guztiak definituko dituzue. Era berean, bakoitzaren papera eta garrantzia arazo horren bilakaeran aztertuko dituzue.

Galdera gakoak:

- Nola lor ...
 - bozio mailak kontrolatzea?
 - jendea garrantziaz ohartaraztea, larritasunik sortarazi gabe?
 - berriz ere hau gerta ez dadila?
 - iodo gehiegikeriarik ez gertatzea?

Material gehigarria: Eredutzat munduko beste zonalde batzuetan egindako beste kanpaina batzuk aurkeztuko zaizkie, besteak beste UNICEF-ek egindakoak. Material hau e-gelan eskuragarri dago.

ILDOA: Kronograma eta entregagaiak

Entregagaia	Jardueraren garapena	Jaso behar duen informazioa
1.	Arazoan parte hartzen duten partaide eta eragile guztiak aztertu. Orrialde bat edo biko luzera daukan txostena eskegiko da hezkuntzarako plataforma birtualean, eskola amaitu ostean.	Pertsona, faktore eta eragileen esku-hartzearen diagrama definitu
2.	Gako galderei erantzuna eman, arazoari balizko konponbideak bilatu. Talde bakoitzak kartulina bana izango du, esaldi bateko proposamen zerrenda bat egiteko. Talde bakoitzari bi gometxa emango zaizkio, lehentasunaren arabera bi proposamenekin geratzeko.	Konponbide garatuak proposatzea. Ideia ezberdinak proposamen bateratuan barneratu behar dira.
3.	Krisi ekonomiko garaian egonda, beste erabaki bat kanpainarik ez egitea izan liteke. Alderatu bi aukerak (egin ala ez egin). Ideia hauek ondo landutako paragrafo batean bilduko dituzte, eta egindako kanpainari gaineratuko diote.	Kanpaina bat guztiz lantzea eta bere bideragarritasuna aztertzea.

Ebaluazio irizpideak eta tresnak. Kalifikazioa.

EBALUATUKO DENA	EBALUAZIO TRESNA	NOTAREN PORTZENTAJEA
1. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G1)	%15
2. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G1)	%15
3. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G2)	%20

2. AZPIJARDUERA: HARAGI PROZESATUAK, ARRISKUA OSASUNERAKO?

MOEren arabera (Munduko Osasun Erakundea), haragi prozesatuak minbizia eragiten duten gaien artean sartu zen (2015/10/27-ko berria).

IARC Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak «nahiko ebidentzia» antzeman ditu haragi mota hori jatearen eta kolon zein ondesteko minbizi izatearen artean.

Halaber, OME Osasunaren Mundu Erakundearen menpeko agentziak jakinarazi du haragi gorria ere «ziur aski» kantzerigenoa dela. Azken horren kasuan, ordea, ez dago nahiko frogarik.

Hainbat taldek kontseilariarekin bilera bat izan nahi dute. Konkretuki, 1) kontsumitzaile elkarlegoak, 2) haragi gorriko ekoizleek, 3) tofu eta soia produktuko ekoizleek eta 4) "Burger Queen" kateko arduradunak kontseilariarekin bildu nahi dira. Kontseilariak onartu egin du bilera proposamena eta talde bakoitzeko ordezkari bati deitu dio biltzera.

Talde bakoitzeko ordezkariak aldeztu aurretik bilera horretan esan nahi duzuen ongi prestatuta eraman nahi du, bere ideiak argi geratzeko eta beste taldeen aldarrikapenekin bate do kontra egiteko.

Bileraren aurretik, pertsona bakoitzari egokitu zaion talde ordezkariaren paperean sartuko da, eta bere ikuspegiaren arabera, arazoaren zergatia eta parte hartuko duten faktoreak azalduko ditu. Era berean, arazoa luzatuko balitz gertatuko denaren aurreikustea jaso behar du txostenean. Bilerara eramango den txosten justifikatua orrialde 1-2ko luzera izango du, eta hezkuntzarako plataforma birtualean eskegiko da.

Bilera egunean beste talde-ordezkari baten txostena irakurriko du, bilera bakoitzeko partaide bakoitzak. Horrela txosten horretan irakurritakoaz baliatuz ikuspegi hori defendatuko du bilera egunean.

Bilera ostean, txostena egiteko jorratutako ikuspegiaren, eta bilera eguneko ikuspegiaren arteko aldeak islatuko dira txosten berri baten. Alderaketa egiteko garaian objetibotasuna erakutsi behar da, beti ere idatzitakoan oinarrituta. Hau da, bilera aurreko txostenean idatzitako azalpenak ikuspuntu guztiak defendatzeko nahikoak ziren ala ez zehaztu. Justifikatutako txosten berriak 1-2 orrialdeko luzera izango du, eta hezkuntzarako plataforma birtualean eskegiko da.

Galdera gakoak:

- Haragi prozesatu guztiak arriskutsuak al dira osasunerako?
- Haragi prozesatuek zer eskaintzen digute nutrizioaren ikuspuntutik?
- Haragi prozesatuen ordezkioak eragin negatiborik izan dezakete?
- Haragi prozesatuen ordezkioek zer eskaintzen digute nutrizioaren ikuspuntutik?

ILDOA: Kronograma eta entregagaiak

Entregagaia	Jardueraren garapena	Jaso behar duen informazioa
4.	Lau taldeak osatu eta bakoitzak egokitutako papera defendatzeko informazioa jaso behar du. Argudioak laburbiltzen dituen txostena prestatuko da.	Ikastaldeari esleitutako rola defendatzeko eta gaitzespenetatik babesteko argudioak bilatu.
5.	Taldekideak nahastu irizpide ezberdinak elkar banatzeko eta akordio batera heltzeko. Ahozko eztabaida planteatu	Ikuspegi ezberdinak barneratzen dituen akordio proposamena jaso. Proposamenak, arazoan parte hartzen duten pertsona, faktore eta eragile guztiak beti ere kontuan izango ditu. Akordioak indarrean jartzeko bideragarritasuna islatu behar du.

Ebaluazio irizpideak eta tresnak. Kalifikazioa.

EBALUATUKO DENA	EBALUAZIO TRESNA	NOTAREN PORTZENTAJEA
4. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G1)	%20
5. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G1+G2)	%30

Feedbacka:

Bi azpijardueratan irakasleak entregagai bakoitza zuzenduko du eta ikasleari bueltatuko dizkio hezkuntzarako plataforma birtualaren bitartez. Modu horretan ikasleak zein zuzenketa egin behar dituen eta entregagaia nola osatu behar duen jakingo du.

TITULAZIOA	GIZA NUTRIZIOA ETA DIETETIKA		
IKASGAIA	DIETETIKA OROKORRA ETA APLIKATUA		
Maila:	3	Lauhileko	Urte osokoa

DIETETIKA OROKORRA ETA APLIKATUA irakasgaia Giza Nutrizio eta Dietetika Graduoko 3. Ikasturtean ikasten da. 12 kreditu ditu (7,5 teoriko eta 4,5 praktikoko) ikasturte osoan 2 lauhilabetetan banatzen direnak. Ikasgaia bi zatitan banatzen da. Lehenengo zatian dietetikako eduki teorikoak lantzen dira, hala nola, egoera nutritiboaren ebaluaketa, gomendio dietetikoak eta dieta orekatua adin talde desberdinentzat. Bigarrenean kontzeptu horiek aplikatu egiten dira tratamendu dietetiko egokiak diseinatzeko ikasteko. Horrez gain, zeharkako gaitasunak lantzeko, kasuaren metodologia jarraitzen da ikaslea bizitza profesionaleko arazo erreal baten aurrean kokatzeko.

JARDUERA: Dieta berdeari eutsiz

AURKEZPENA:

Zer landuko da: Kasu honen bitartez ikasleak dietista baten egoeran jartzen dira eta elikadura arazoak dituen neska nerabe batentzako konponbide bat diseinatu beharko dute. Horretarako lehendabizi, neskaren egoeran eragiten duten faktore guztiak sakon analizatu beharko dituzte, faktore horiek nola eboluzionatuko duten neurtu, eta arazoaren aurrean konponbide bat diseinatu beharko dute.

Zer gaitasun landuko da: gaitasun holistikoa, aurreikuspen gaitasuna eta estrategia gaitasuna landuko dira.

Metodologia: Kasuaren metodoa. Taldeka kasu erreal baten ebazpena diseinatu beharko dute horretarako, emandako informazioaz gain, beste iturri batzuk erabiliz. Jarduera bakoitzerako hainbat metodologia aktibo erabiliko dira: taldeka rola esleituko dira, informazio bilaketarako Aronsonen puzzlea erabiliko da etab. Ikasleek era aktibo eta kolaboratiboan jardungo dute.

Aurreikusitako ordu kopurua: 15 ordu (5 presentzial eta 10 ez presentzial)

Ebaluazioan duen portzentajea: %10

JARDUERA-FITXA

June Zamakolak Dietista-Nutrizionista gisa egiten zuen lan Gasteizko Batan kalean zegoen kontsultan. Gabriela Sagasta eta 16 urteko alaba, Miriam Ramos, kontsultara joan ziren.

Miriamek "ekologista" izan nahi zuela erabaki omen zuen eta, beraz, barazkijale dieta bat jarraitzeko asmotan zebilen. Haren amak, Gabrielak, erabakia "pisua galtzeko estrategia" bat besterik ez zela aitortzen zuen eta alabak anorexia nerbiosoa bezalako asaldura bat pairatzeko arriskuaren beldur zen.

Gabrielak Juneri bere alabak halako ideiak alde batera uzteko konbentzitu zezan eskatu zion eta argaltzeko dieta bat diseinatzeko eskatu zion.

Galdera gakoak:

- Zein da Miriamen arazoa?
- Zerk eragiten du(te) arazo honetan?
- Nola eboluziona dezake?
- Ze estrategia jarraitu behar du Junek Gabriela eta Miriamen arazoa konpontzeko?

Material gehigarria: Kasuaren inguruko materiala: kontsultetako elkarrizketen transkripzioak, datu antropometrikoak eta biokimikoak, pertzentilen kurbak, historia dietetikoak (24 orduko oroitzenak eta maiztasun galdeketa), kirol historiari buruzko galdeketa, lotutako faktoreen galdeketa, historia klinikoa ebaluatzeko galdeketa, dieten ereduak (1600, 1800 eta 2000 kcal), dieta barazkijaleei buruzko informazioa eta kasua ebazten laguntzeko bibliografia.

ILDOA: Kronograma eta entregagaiak

Entregagaia	Jardueraren garapena	Jaso behar duen informazioa
1. entregagaia	Arazoan parte hartzen duten partaide eta eragile guztiak aztertu. Analisia deskribatzen duen txostena eskegiko da hezkuntzarako plataforma birtualean.	Arazoaren identifikazioa eta eragiten duten adierazle guztien analisia
2. entregagaia	Arazoan eragile nagusiek nola eboluzionatuko duten aztertu eta egoera etorkizunean nolakoa izango den deskribatu. Egoera etorkizunean deskribatzen duen txosten bat eskegiko da hezkuntzarako plataforma birtualean	Etorkizuneko egoeraren aurreikuspena
3. entregagaia	Arazoaren aurrean konponbide dietetikoak ezarri. Arrazoitu aukeratutako dietaren zergatia (normokalorikoa, hipokalorikoa, anitza, barazkijalea, etab.). Dieta jasagarria izan dadin bertako eta sasoiko produktuekin ordezkatu oreka nutrizionala lortu arte. Dietaren txostena eskegiko da hezkuntzarako plataforma birtualean	Arazoaren konponbidea izango den strategiaren diseinua: dieta
4. entregagaia	Arazoaren aurrean eragiten duten beste adierazle nagusientzat konponbidea ezarri (hezkuntza nutrizionala, kirol programa, familia eta lagunarteko terapia, etab.). Konponbidea deskribatzen duen txostena eskegiko da hezkuntzarako plataforma birtualean	Arazoaren konponbidea izango den strategiaren diseinua: beste adierazleen konponbidea
5. entregagaia	Aurreko entregagai guztiak zuzendu eta osatu. Kasuaren lau entregagaiak biltzen dituen txostena egin.	Egindako lan guztiaren analisi globala
6. entregagaia	Kasuaren inguruko eztabaida egingo da gelan entregagai bakoitzean jorratu dena komentatuz. Ikasle bakoitzak, modu indibidualean, bere iritzia defendatu eta arrazoitu beharko du. Entregagaia: Eztabaidan ikasle bakoitzak duen parte hartzea ebaluatuko da.	Kasuaren inguruko eztabaida

Ebaluazio irizpideak eta tresnak. Kalifikazioa.

EBALUATUKO DENA	EBALUAZIO TRESNA	NOTAREN PORTZENTAJEA
1. entregagaia	Ebaluazio Errubrika (G1)	%17
2. entregagaia	Ebaluazio Errubrika (G2)	%6
3. entregagaia	Ebaluazio Errubrika (G3)	%10
4. entregagaia	Ebaluazio Errubrika (G3)	%17
5. entregagaia	Ebaluazio Errubrika (G1+G2+G3)	%25
6. entregagaia	Ebaluazio Errubrika (G1+G2+G3)	%25

Feedbacka:

Irakasleak entregagai bakoitza zuzenduko du eta ikasleari bueltatuko dizkio hezkuntzarako plataforma birtualaren bitartez. Modu horretan ikasleak zein zuzenketa egin behar dituen eta entregagaia nola osatu behar duen jakingo du. Zuzenketak egin ostean, 4 entregagaiak bildu beharko ditu azken txostenean.

TITULAZIOA	GIZA NUTRIZIOA ETA DIETETIKA		
IKASGAIA	NUTRIZIOARI LOTURIKO EPIDEMIOLOGIA (NUTRIZIO-EPIDEMIOLOGIA)		
Maila:	3	Lauhilabetea	1

NUTRIZIOARI LOTURIKO EPIDEMIOLOGIA irakasgaia Giza Nutrizio eta Dietetika Gradu 3. Ikasturtean ikasten da. Irakasgaia derrigorrezkoa da, 6 kreditu ditu (1,2 teoriko eta 4,8 praktiko) eta lehenengo lauhilekoan ematen da. Irakasgai honek, giza populazioetan, dieta eta osasunaren arteko lotura ikasteko oinarri metodologikoak ezartzea du helburu. Ikerketa epidemiologiko mota ezberdinak, gaixotasunen maiztasun neurriak, dieta neurtzeko galdetegiak, ebidentzian oinarritutako nutrizioa eta datu epidemiologikoen analisi estatistikoa lantzen dira irakasgai honetan, bereziki.

JARDUERA: Ebidentzian Oinarritutako Nutrizioa

AURKEZPENA:

Zer landuko da: Jarduera honen bitartez ikasleak Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Sailean lan egiten duen dietista-nutrizionista baten egoeran jartzen dira. Ikasleek dietak ingurumenean duen eragina, eta bide batez, gizartearen osasunean eduki dezakeen eragina aztertu beharko dute arazoetan oinarritutako ikasketaren bitartez.

Zer gaitasun landuko da: gaitasun holistikoa, aurreikuspen gaitasuna eta estrategia gaitasunak landuko dira.

Metodologia: Metodologia aktiboak eta kooperatiboak erabiliko dira: Arazoetan oinarritutako ikasketa eta taldeko lan kooperatiboa (4-5 pertsona).

Hiru jarduera planteatzen dira:

1. Bilaketa bibliografikoa tailerra (lan aktiboa-indibiduala).
2. Irakurketa kritikoko tailerra (lan aktiboa-kooperatiboa)
3. Ebidentzia eta gomendio mailak (lan aktiboa-indibiduala).

Aurreikusitako ordu kopurua: 9 (6 ordu presentzial eta 3 ordu ez-presentzial)

Ebaluazioan duen portzentajea: %9

JARDUERA-FITXA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Sailean lan egiten duzu. Elikagaien produkzio eta kontsumitzeko moduek eragina daukate gure ingurumenean, batez ere baliabideen erabilpenagatik eta berotegi efektuko gasen emisioagatik.

Mediterranean Dieta dieta jasangarrien ereduaren artean proposatua izan da bere dimentsio nutrizionala eta ingurumen, ekonomia eta ikuspegi soziokulturalagatik bereziki.

Hala ere, gai honen inguruan ebidentzia gehiago beharrezkoa da.

Gure ingurunean (Euskal Herrian), mediterranean dietaren jarraipena (dietarekiko atxikipena) eta lurra, ura, energia kontsumoa eta berotegi efektuko gas emisioaren arteko lotura ikertzeko eskatu dizute.

Galdera gakoak:

- Zelan egituratzen da bilaketa bibliografiko bat ikerketa galdera bat erantzuteko?
- Zelan ikertu daiteke dieta eta osasun ondorioen arteko loturak modu fidagarrian?
- Zelan ematen da ebidentzian oinarritutako gomendio bat?

Material gehigarria: Planteatutako arazoari aurre egiteko materialak eta errekurtsuak (webguneen linkak, artikuluko zientifikoak, ebaluaketa kritikoa egiteko fitxak) e-gelan eskuragarri daude.

ILDOA: Kronograma eta entregagaiak

Entregagaia	Jardueraren garapena	Jaso behar duen informazioa
1. entregagaia	Bilaketa bibliografikoko tailerra ordenagailu praktika baten bidez.	Biomedikuntzako datu baseetan bilaketa bibliografikoa egituratu (ikerketa galdera definitu, bilaketarako errekurtsuak aurkitu, bilaketa estrategia definitu).
2. entregagaia	Irakurketa kritikoko tailerra. Artikulu epidemiologiko baten irakurketa, analisi eta eztabaida kritikoa eginez.	Nutrizio eta osasunaren lotura ikertzen duen zientzia artikuluko baten kalitatea eta baliozkotasuna ebaluatu (artikulu baten atal nagusiak ebaluatu modu kritikoa)
3. entregagaia	Ebidentzia eta gomendio mailak Nutrizioan, ebidentzia zientifikoa eta gomendio mailen inguruko eskalak erabiliz.	Ebidentzian oinarritutako gomendio nutrizionalak prestatu.

Ebaluazio irizpideak eta tresnak. Kalifikazioa

EBALUATUOKO DENA	EBALUAZIO TRESNA	NOTAREN PORTZENTAJEA
1. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G1)	%22,5
2. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G2 + G3)	%44,5
3. entregagaia	Ebaluazio errubrika (G2 + G3)	%33

Feedbacka:

Klase bakoitzaren amaieran irakasleak "jardueraren garapenaren" inguruko balorazio kualitatibo bat egingo du (lan individualaren funtzionamendua eta taldeko lanaren koordinazioa, errekurtsuen erabilpena, denboraren ustiaketa eta markatutako helburuen betetzea).

TITULAZIOA	GIZA NUTRIZIOA ETA DIETETIKA		
IKASGAIA	ELIKAGAIEN SEGURTASUNA ETA KALITATEA		
Maila:	3	Lauhilekoa	1

ELIKAGAIEN SEGURTASUNA ETA KALITATEA irakasgaia urte osokoa da eta, edukiei dagokienez, hiru atalez osaturik dago: Toxikologia, Segurtasunaren kudeaketa (AKKPA/HACCP) eta Kalitate-kudeaketa. Elikagaien Higiene, Segurtasuna eta Kalitatea Moduluaren baitan kokatzen da (M03), Giza Elikadura eta Dietetikan Graduko 3. mailan.

Irakasgai honetan lehendabizi elikagaietan dauden edo suerta daitezkeen arriskuak zehazten dira eta, ondoren, osasun eta higiene berme egokia eskaini ahal izateko beharrezko kudeaketarako erremintak lantzen dira, beti ere indarrean dauden estandar tekniko eta/edo arauak kontuan hartuz. Honekin batera, elikagaien kalitate kontzeptua ere lantzen da inplikatzeko dituen alderdi anitzak eta subjektibotasuna azpimarratuz eta kontsumitzaileok elikagaien aukeraketan darabiltzagun irizpideak aztertuz.

JARDUERA: Merkurioa atunean

AURKEZPENA:

Zer landuko da: ikasleak kudeaketa-arduradun baten rolean sartuta, arrainen ingurumen kutsaduraren arazoan inplikaturako faktore eta eragileak aztertu beharko dituzte. Arazoa behin ezaugarritua, gaur egun nazioartean proposatzen diren plan eta neurriei buruzko informazioa bilatu beharko dute. Amaitzeko, landutako informazioa kontuan hartuz, arazo honek etorkizunean izango duen bilakaerari buruzko hausnarketa egingo dute.

Zer gaitasun landuko da: gaitasun holistikoa, aurreikuspen gaitasuna eta estrategia gaitasunak landuko dira.

Metodologia: Dibergentzia eta konbergentzia bikoitzaren teknikan oinarritzen da: arrainetan dagoen merkurio edukiaren kausak identifikatu eta grafikoki adierazten dituzte, lanean taldeek. Landutako hau ikasle bakoitzak indartu eta osatu egiten da nazioarteko plana aztertuz eta klasean informazio hau eztabaidatuz eta komunean jarritz. Amaitzeko, banaka, ariketan zehar jorratutako alderdiak kontuan hartuz, etorkizuneko bilakaeraz hausnarketa egingo da.

